Bergarako Udaleko Euskara Batzordea

Koldo Eleizalde Lehiaketak 2012

XXVII. edizioa

Ipuina
Bertsoak
Komikia
Txistea/Umorezko pasadizoa

Antolatzailea:

Bergarako Udala

Laguntzailea:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua

Azaleko irudia: Jon Balentziaga

Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati.

Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati

Lege gordailua: SS/156-2012

Aurkibidea

SARRERA 5

Ipuina

1. taldea:

Saria: **"Bergarako iturria".** Maddi Lazkano Ezpeleta 7
Saria: **"Erle magikoa".** Aroa Lazcoz Conde 11
Saria: **"Eskoba magikoa".** Olatz Gallastegi Visitación 15

2. taldea:

Saria: **"Entsalada lehiaketa".** Malen Kalboetxeaga Garitano 19
Saria: **"Armiarma berritsua".** Maitane Etxabarri Alberdi 23
Saria: **"Erratz txoroaren jabea".** Leire Arietaleanizbeaskoa 27

3. taldea:

Saria: **"Pepe pirata mutua".** Aitor Esnaola Soraluze 31
Saria: **"Osagaien haserrea".** Nekane Ramudo 35
Saria: **"Grafikoa".** Lide Albeniz Arana 39

4. taldea:

1. saria: **"Izebak oparitutako egunerokoa".** Olatz Abasolo 43
2. saria: **"Jone, ez zaude bakarrik".** Maitane Muruamendiaraz Arana 51
3. saria: **"Amaren gutuna".** Gaizka Morales 59

5. taldea:

1. saria: **"Maitasun likidoa".** Maddi Iñarra Ibarguren 65
2. saria: **"Erantzunen galderak".** Ana Moñux Txintxurreta 71
3. saria: **"Tik-tak".** Uxue Agirre Madariaga 85

Bertsoa

1. taldea:

Saria: **"Goazen hondartzara".** Josu Elizburu, Danel Soto, iñaki Mujika Irati Olabarria, Elene Arruti eta Aaron Gabilondo 91

Saria: **"Nere bizitza Euskal Herrian".** Ibon Muniategiandikoetxea 95

2. taldea:

1. saria: **"Gure gustokoak".** Iker eta Xabier Aldai 99

3. taldea:

1. saria: **"Indarrez beteriko txinpartak".** Nerea Madariaga Mujika 103

2. saria: **"Borboiak".** Maddi Txintxurreta Agirregabiria 107

"Hegoalderantz". Amaia Arana, Leire Martin eta Maialen Belastegi ...111

Komikia

1. taldea:

Saria: **"Lagun baten bizitza".** Maddi Gutierrez Zenitagoia 115

Saria: **"Eguzkia eta ilargia".** Maddi Bengoa Arregi 117

2. taldea:

1. saria: **"Kobazulokoak".** Naroa Inza Retes 119

2. saria: **"Umekeriak".** Joseba Carnicero Padilla 121

3. taldea:

1. saria: **"Bergarako jaixetan".** Mª Angeles Padilla 123

2. saria: **"Irakasle metaforikoa".** Gorka Martin Gonzalez 125

Txistea eta umorezko pasadizoa

1. taldea:

Saria: **"Mesedez".** Julen Zabala 127

Saria: **"Usain txarrak, lanak".** Aritz Unamuno, Josu Morras eta Aitor Alberdi 129

2. taldea:

1. saria: **"Zilarrezko ezteiak".** Irati Lazpiur 131

2. saria: **"Txixaguria".** Jon Etxeberria 133

Hitzaurrea

Urtero legez, aurtengo Koldo Eleizalde lehiaketako uzta ere oparoa izan da: ipuinak, txisteak, bertsoak, komikiak...

Gure herriko sortzaile txiki zein nagusien ilusio, sormen eta gogotik egindako lanen bilduma ederra eta bizia jasotzen da eskuartean duzuen liburuxka honetan.

Sortzaile horietako bakoitzaren barne-musika bereziaz jabetzeko aukera bikaina da, irakurle gisa gozatzeko eta disfrutatzeko.

Egoerak eraginda, aurten liburuaren ale kopuru txikiagoa atera dugu. Edonola ere, jakizue Koldo Eleizalde lehiaketako lan hauek eta beste hainbat (antzerkiak, ipuin-kontaketak...) gozatu ahal izango direla Internet bidez, **http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketa** helbidean. Han izango dituzue lehiaketara aurkeztutako ikusentzunezko guztiak.

Amaitzeko, zorionak saridunoi eta eskerrik beroenak parte-hartzaileoi zein lehiaketa posible egin duzuen guztioi. Aurrerantzean ere parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko gonbidapena egiten dizuet. Mila esker eta zorionak guztioi!!!

Maren Belastegi
Euskara batzordeburua

Ipuinak

Lehenengo taldea

Saria

Maddi Lazkano Ezpeleta

Bergarako Iturria

Bergarako iturria

Orain dela lau urte bazen Bergaran iturri eder bat. Iturri hori magikoa zen. Jendea triste zegoenean iturrira joaten zen.

Egun batean pertsona bat iturrira joan zen triste zegoelako. Edan zuen ur pixka bat eta ez zen poztu.

–Iturriari zerbait gertatzen zaio! –oihukatu zuen.

Herritar guztiak berari begira jarri ziren eta larritu egin ziren.

Orduan, martetar bati deitu zioten eta martetarrak esan zuen:

–Iturri honi nire planetako harri berezi bat falta zaio. Norbait etorriko al da harri gorriaren bila?

Maitek eta Maitanek erantzun zuten:

–Gu, gu joango gara zurekin!

Horrela, martetarrarekin joan ziren biak. Martera ailegatu zirenean esan zuten:

–Gora! Planeta gorrian gaude!

Hirurak harri magikoaren bila joan ziren. Azkenean lortu zuten. Berriro hirurak Bergarara itzuli ziren iturriari harria ipintzera. Harria ipini ziotenean iturriak berriro bere ahalmen magikoa berreskuratu zuen.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila Bergarako plazan.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Lehenengo taldea

Saria

Aroa Lazcoz Conde

Erle magikoa

Erle magikoa

Behin batean, aspaldi-aspaldi, erlauntz batean erle magiko bat bizi zen.

Egun batean berba egiten hasi zen eta erleak esan zuen:

–Zer da zarata hori?

Erlea erlauntzetik irten eta bat-batean hegoak desagertu eta bi hanka txiki irten zitzaizkion.

Erlearen familia ikaratuta gelditu zen, bi hanka zituelako eta berba egiten zuelako.

Erlea kezkatuta zegoen hegorik ez zuelako eta zortzi hanka txiki ez zituelako eta oso triste zegoen bere familiakoen berdina ez zelako.

Gero erlea konturatu zen hankekin gauza gehiago egin ahal zituela eta pozik jarri zen. Ikastolan erleak lanak lehenago bukatzen zituen eta horregatik pozik zegoen. Horrela, erlearen familia pozik zegoen lanak azkar egiten zituelako.

Horrela erlea eta bere familia pozik bizi izan ziren.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Lehenengo taldea

Saria

Olatz Gallastegi Visitación

Eskoba magikoa

Eskoba magikoa

Aspaldi-aspaldi eskoba bat bizi zen.

Eskoba dantzan eta pozik ibiltzen zen egunero-egunero. Behin, eskobak kalera irten nahi zuen eta hori lortzeko tximiniatik joan zen.

–Kalea liluragarria da –esan zuen eskobak.

Leku guztiak miatu ondoren etxera itzuli zen. Etxean, sutondoan, hitz magikoak esan zituen:

–Magikoa! Magikoa! Magiko bihur nazazu!

Lotan zegoela magiko bihurtzen hasi zen eta esnatu zenean:

–Hara, magikoa naiz! –esan zuen pozik.

Magia bere gauzetarako erabili zuen eta bere nahiak bete zituen. Bere eskoba maitea bereganatzeko ere erabili zuen ahalmena.

Eta handik aurrera denek miresten dute eskoba magikoa. Zuk baduzu?

A! Eskoba magikoaren neska ere magikoa da.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Bigarren taldea

Saria

Malen Kalboetxeaga Garitano

Entsalada lehiaketa

Ipuinak

Entsalada lehiaketa

Bazen behin Porrusalda izeneko herrixka zoragarri bat. Bertako bizilagun guztiak oso zoriontsuak ziren, batez ere, euren erregea zen Azenario lehenengoa oso gizon ona eta apala zelako. Baina azkenaldian herria pixka bat triste zegoen, beraien errege maitagarria gaixo samar zegoelako eta aurten, urtero bezala, inguruko herri guztien artean antolatzen zen "Entsalada lehiaketa" famatura aurkezteko gogo gabe zebilelako Azenario erregea.

Goiz batean alkateak herritar guztiak herriko plazan bildu zituen eta honako hau esan zien:

–Herritarrok! Dakizuenez azkenaldian gure errege maitea nahiko gaixo dabil. Ez dauka ezertarako gogorik, ezta aurtengo lehiaketan parte hartzeko ere. Baina zer iruditzen zaizue inoiz egin dugun entsaladarik zoragarriena prestatzen badugu eta lehiaketa hori bere omenez irabazten badugu?

–Bai! Bai! –oihu egin zuten denek batera.

–Oso ondo! Hori izango da gure erregea sendatzeko botikarik onena! –esan zuen alkateak.

Beraz, hurrengo egunetan herritar guztiak elkartu eta eurek aurkeztuko luketen entsaladaren osagaiak prestatzen hasi ziren. Osagaien zerrenda pentsatu zutenean tomaterik ez zeukatela konturatu ziren, eta gainera, euren herri eta inguruetan ere ez zela tomaterik gelditzen ohartu zirenean, denak oso atsekabetuta gelditu ziren.

–Tomaterik gabeko entsalada ez da benetako entsalada! –esaten zuten denek.

–Eta zer egingo dugu orduan?

–Esaten dutenez mundu osoko tomaterik onenak Azalore herrialdean daude.

–Baina hori oso urruti dago eta bidaia oso arriskutsua da! Nola helduko gara bertaraino?

–Ni prest nago bidaia hori egiteko eta nire lagunak ere bai! –esan zuen Patatatxo gazte ausartak.

–Ongi da! Joan zaitezte lehenbailehen!

Gau eta egun geratzeke ibili ostean, bidaiaren lehenengo proba arriskutsura heldu ziren: Tximisten uhartera. Tximistetatik babesteko, alboan zuten zuhaitz erraldoi batetik hosto bana hartu eta buru gainean jarri ondoren, korrika batean pasatu eta berehala utzi zuten uhartea. Segidan Kalabaza lurraldera iritsi eta sekulako ur-jauzia ikusi zuten. Denek ideia bera izan zuten: lehen erabilitako hostoak jausgailu bezala erabiltzea. Eta salto handi bat eman ondoren ur-jauzian behera joan ziren.

Denak ondo zeudela ikusi ondoren aurrera jarraitu zuten. Azkenean Patataldeko basamortura iritsi eta sekulako beroa sentitu zuten, baina oraingoan ere Patatatxok ideia ona izan zuen: bakoitzak hostoa buru gainean jartzea eguzkitik babesteko. Bidea oso gogorra iruditu zitzaien, baina azkenean basamortua zeharkatu eta Azalore lurraldera iritsi ziren. Segituan ikusi zituzten baratzean inoiz ikusitako tomaterik zoragarrienak. Ederrena aukeratu eta etxerako bidea hartu zuten. Porrusaldara iritsi bezain laster entsalada zoragarri bat prestatu eta lehiaketa irabazi zuten. Azenario erregea asko poztu zen eta erabat sendatu zen.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Bigarren taldea

Saria

Maitane Etxabarri Alberdi

Armiarma berritsua

Ipuinak



Armiarma berritsua

Bazen behin mutiko bat bere etxeko pasilloan jolasten ari zena. Bat-batean konturatu zen zulo txiki bat zegoela. Bertara hurbildu zen eta armiarma txiki bat ikusi zuen:

–Nor zara zu? –galdetu zion mutikoak.

–Ni armiarma berritsua naiz, eta zu? –erantzun zion.

–Nire izena Jon da.

Egun hartatik aurrera lagun minak egin ziren. Egunero, ikastola bukatutakoan, Jon etxera joaten zen egunean zehar egindakoa armiarmari kontatzera.

Armiarmak ere Joni istorio politak kontatzen zizkion. Adibidez, kontatu zion, egun batean, zarata ugari egiten zuen haize handi batek zulotik atera nahi izan zuela.

Jon barre algaraka hasi zen:

–Hori nire ama da, aspiradora pasatzen, esango diot hemendik aurrera pasilloan ez pasatzeko.

Biek barre algarak egin zituzten.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Bigarren taldea

Saria

Leire Arietaleanizbeaskoa

Erratz txoroaren jabea

Erratz txoroaren jabea

Baziren behin Zugarramurdin sorgin batzuk.

Sorgin horietako baten erratza txoratuta zegoen. Horregatik, Sarako kobazulora joan zen eta kobazuloan galdu zen.

Erratz txoroaren jabeak Marixan zuen izena eta bere lagunekin joan zen erratz txoroaren bila.

Sarako kobazuloan denbora luzez bilatzen ibili ziren baina ez zuten aurkitu. Hala ere, erratza Sarako kobazuloan zegoen, bertan zeuden umeei txorakeriak egiten. Halako batean Marixan konturatu zen eta erratza hartu zuen.

Ume guztiak negarrez hasi ziren:

–Mua, mua…! Mesedez utzi erratza asko dibertitzen gara eta.

–Beno, ados.

–Jupi, jupi, jupi!

–Beste bat erosiko dut.

Hurrengo egunean Marixan beste erratz bat erostera joan zen. Dendan erratz asko zeuden eta erratz txoroaren moduko bat ikusi zuen.

–Hori nahi dut! –esan zuen Marixan sorginak.

Erratza hartu eta poz-pozik joan zen.

Ipuinak

Zugarramurdira erratz berriaren gainean heldu zen.

Marixan bere lagunei erratza erakustera joan zen:

–Ikusi, erratz berria daukat.

Bere lagun txikiak esan zion:

–Zelako erratz polita duzun! Nik ere horrelakoxea nahiko nuke.

Bat-batean, erratz berria, beste erratzaren moduan, txorakeriak egiten hasi zen. Etxeetatik pasa zen umeei txorakeriak egiten baina, oraingoan, Ainhoako kobazulora joan zen.

Marixan erratz txoroaren atzetik joan zen.

Marixan, berriro, bere lagunekin bigarren erratz txoroa bilatzen hasi zen.

Erratz hori ere umeei txorakeriak egiten zegoen.

Oraingoan umeek ez zuten lortu erratz txoroarekin geratzerik. Negarrez hasi ziren baina beraien amek erratza bisitatzera etorriko zirela esan zieten.

Umeak, beti, Ainhoako kobazulora joaten ziren eta, batzuetan, erratza azaltzen zen txorakeriak egitera umeei.

Handik aurrera denak poz-pozik bizi izan ziren.

Hala bazan ez bazan, sar dadila Zugarramurdiko plazan.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Hirugarren taldea

Saria

Aitor Esnaola Soraluze

Pepe pirata mutua

Ipuinak

Aizue! joan zaitezte artaunetara!!!
Aizue! joan zaitezte koka-kutak erostera!!!

Pepe pirata mutua

Bazen behin hitz egin ezin zuen Pepe izeneko pirata kapitain bat. Egunero-egunero tripulazioari aginduak ematen saiatzen zen baina alferrik…! Ez zioten entzuten…! Horregatik, egun batean, loro "berezi" bat erostea bururatu zitzaion: pentsamenduak irakurri eta esan egiten zituen loroa.

Loro hori lortzeko leku bakarra Merlin aztiaren etxea zen eta, horrela, Merlinen etxerantz abiatu zen. Merlinek esan zion loro hura lortzeko modu bakarra zegoela… 3 proba gainditzea.

Lehenengo proba uharte batetik bestera igerian joatea zen, marrazoz betetako itsasotik. Pepe, oso beldurtuta, ziztu bizian heldu zen beste aldera.

Bigarren proba, bi dortokari oskol gainean Merlin izena idaztea zen, baina, horretarako, aurretik, 2 krokodilo hil behar zituen. Krokodiloak lotsagabeak ziren eta Pepe zirikatzen hasi ziren. Orduan, Pepek, amorru biziz, plast! Kristoren kolpea eman zien, adar handi batekin. Biak erdi hilda geratu ziren eta antxintxika, dortokei izena ipintzera joan zen.

Hirugarren proba oso zaila zen. Merlin aztiaren usain txarreko galtzontziloak garbitzea. Pepek orduak eta orduak eman zituen eta azkenean lortu zuen helburua.

Hiru probak gainditu zituela ikusi zuenean Merlinek loroa eman zion eta Pepe zoriontsu joan zen etxera.

Ipuinak

Hurrengo egunean tripulazioa bildu eta batzar bat egin zuten. Baina loroak, Pepek pentsatzen zuena esan beharrean, hitz batzuk aldatu egiten zituen. Adibidez:

–Aizue! Joan zaitezte arraunera!

–Aizue! Joan zaitezte coca-colak erostera!

Eta horrela egunero… Horregatik, Pepe piratak erabaki bat hartu zuen: bere pentsamenduak aldrebes pentsatzea. Horrela, loroak Pepek nahi zuena esango zuela pentsatu zuen. Eta bete-betean asmatu zuen.

Orain Pepe oso zoriontsu bizi da.

Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila Koldo Eleizalde lehiaketan.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Hirugarren taldea

Saria

Nekane Ramudo

Osagaien haserrea

Ipuinak



Osagaien haserrea

Bazen behin dendari bat Jokin izenekoa. Legamia, arrautza, irina, jogurta, olioa eta azukrea, dendako osagai ugarienak, oso gaizki konpontzen ziren elkarren artean.

Dendariak osagaiak oporretara bidaltzea erabaki zuen, horrela lagunak egingo zirelakoan.

Benidormera bidaltzea erabaki zuen.

Lehenengo egunetan oso ondo pasatu zuten osagaiek elkarrekin. Egun batzuk pasa ostean, ordea, legamiak beroa zuen eta arrautza oso haserre zegoen bere buruarekin; irina, berriz aspertuta zegoen eta jogurta hoztuta; olioak handik alde egin nahi zuen eta azukrea, azkenik, gaixorik. Behingoz denak ados jarri eta dendara bueltatzea erabaki zuten. Elkarrekin dibertitzen egon baziren ere, bueltan ez zituzten beraien arteko haserreak baretu.

Egun batean neska bat etorri zen dendara; legamia, arrautza, irina, jogurta, olioa eta azukrea erosi zituen. Osagai guzti horiekin tarta eder bat egitea pentsatu zuen. Osagaiak, orduan, konturatu ziren elkarrekin ere gauzak egin zitzaketela eta lagunak bihurtu ziren. Are gehiago, neskak, herriko jaietan tarta ederra egin zuen: jakia oso ospetsua bihurtu zen jende guztiari gustatu baitzitzaion.

Harrezkero, Jokin dendaria eta osagaiak pozik bizi dira…! Batetik gizonak asko saltzen duelako eta, bestetik, osagaiak elkarrekin haserretuta egon ordez, guztien artean, zerbait ederra eraikitzen dutelako.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Hirugarren taldea

Saria

Lide Alberiz Arana

Grafikoa

Grafikoa

Leihotik sartzen ziren eguzki izpi argiek esnatu zuten Mairi. Oso goiz ederra zen Zarautzen. Egun hartan, Mairik, zerbait arraroa sumatzen zuen, baina ez zekien zer zen, horregatik kasu handirik egin gabe bere egunerokoak egiten jarraitu zuen. Lehenengo dutxan sartu zen, jantzi eta gosaltzera joan zen. Bertan gosari eder bat zegoen. Jan bezain laster antxintxika irten zen eskolara bidean.

Hamar bat minutu beranduago ailegatu zen eta horregatik Marian andereñoak pare bat gauza esan zizkion:

–Aizu, Mairi! Zer dela eta zatoz berandu?

Mairi, lotsaturik, hitz batzuk esatera ausartu zen.

–Ba…, ba… lo… loka… lokartu…

Marianek ez zuen klase gehiagorik galdu nahi izan:

–Orain, atera "Mate". 103. eta 104. orrietako problemak egiteko dauzkazu.

Mairi oso aditua zen matematikan, baina gaur ez zen bere eguna. Koadernoa etxean ahaztu zitzaion. Horren ondorioz, orri zuri batean egin behar izan zituen problemak, baina Mairiri ez zitzaizkion orri zuriak gustatzen. Bere koadernoko orri guztietan marrazkiak zituen eginda eta horrek inspirazioa ematen zion pentsatzeko. Marrazki asko zituen baina bazuen bat oso xelebrea zena. Problema batetik atera zuen. Bertan grafiko bat zegoen marrazturik. Mairik be-

giratzen zuen bakoitzean irudi desberdinak ikusten zituen. Berarentzat magia zuen grafikoak. Batzuetan ahate bat zela iruditzen zitzaion eta ahate itsusiaren ipuinaz gogoratzen zen eta tristura sentitzen zuen. Beste batzuetan grafikoak suge beldurgarri bat zirudien, bi zenbakiaren antza ere bazuen…

Oraingoan ere problemen artean grafiko bat zegoen. Baina Mairik hain urduri zegoenez ezin zuen irudien magiaz jolastu.

Luze egin zitzaion arren, etxera joateko ordua iritsi zen. Ailegatu bezain laster "Mate"-ko koadernoa hartu eta eskolako grafikoa marraztu zuen. Azpian "Magiarik ez" ipini zuen.

Hala bazan eta ez bazan, magia sar dadila kalabazan eta atera dadila, berriz, matematikako grafikoetan.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Laugarren taldea

1. saria

Olatz Abasolo

Izebak oparitutako egunerokoa

Izebak oparitutako egunerokoa

2008ko maiatzaren 17a

Kaixo egunkari maitea, ni Malen naiz eta zazpi urte ditut. Orain dela aste bat nire urtebetetze eguna izan zen, eta atzo, nire izeba Loreak egunkari hau oparitu zidan. Ni izebarekin haserre nengoen ez zelako nire urtebetetze festara etorri, baina asko gustatu zait bere oparia eta jada ez nago haserre.

Izebak esan zidan hemen nire sentimenduak, emozioak, gertatzen zaizkidan gauzak edota nire inguruan gertatzen diren gauza garrantzitsuak idatz ditzakedala. Nik oraindik ez dakit sentimenduak idazten, baina hurrengo ikasturtean hirugarren mailara joango naiz eta han ikasiko dut.

2008ko abenduaren 29a

Izebak esan zidan egunerokoa egunero idazteko dela baina niri ahaztu egiten zait, baina abenduaren 31n izebarekin afaldu behar dugu eta idazten dudala esan nahi diot.

Amatxo gaixorik dago eta oporren aurreko bi asteetan berak esnatu nau baina ez da niri merienda ekartzera joan; aitak esaten du ez dela komeni ama etxetik irtetea.

Gabon gauean ere ez zen Olentzerori ongietorria egitera irten baina nik bota nuen bere eskutitza.

Nire anaia Mikelek 13 urte dauzka eta esaten du Olentzero ez dela existitzen, baina nik badaezpada ere gutuna idatzi nion.

2009ko urtarrilaren 15a

Amatxok gaixo jarraitzen du, eta aitak esan dit laster ospitalera joan beharko dela egun batzuk pasatzera, sendagai berezi batzuk hartzeko. Ni asko larritu naiz, ze ospitalera oso gaixo daudenak baino ez dira joaten, eta nik ez dut nahi nire ama oso gaixo egoterik…

Ez dakit amak zer gaixotasun duen baina, ematen duenez, larria da eta gainera aitak esan dit Mikel eta ni ezingo garela bera ikustera joan. Baina nola sendatuko da gure besarkadarik gabe?

2009ko urtarrilaren 29a

Amak ospitalean jarraitzen du, eta aita berarekin geratzen da, beraz Mikel eta ni izebarekin gaude etxean.

Gaur eskolan lur planetari buruzko marrazki bat egiteko esan digute, eta talde txar-txarra tokatu zait, Gorka eta Enekorekin. Gorkak ez daki marrazten eta Enekorekin haserre nago ze aurreko astean nire kolorezko arkatz gorria erditik apurtu zuen.

Izebari kontatu diot dena eta berak hemen idazteko esan dit. Ez nau ulertzen. Nik ez dut idatzi nahi, nik txokolate bokadiloa nahi dut, amatxok triste nagoenetan egiten duen bezalakoa. Faltan botatzen dut ama. Baina azkenean izebari kasu egin diot, eta egunkarian idatzi dut (argi dagoen bezala). (Gaur eskolan parentesiak zer diren ikasi dugu).

2009ko irailaren 6a

Amak denbora luzea darama ospitalean, aurreko ikasturtetik, eta bihar laugarren mailan hasiko naiz.

Udan udalekuetan egon nintzen Zuhatzan, eta untxi piloa ikusi nituen. Gero abuztuan L'escala-ra joan ginen Mikel, izeba eta ni, baina amak ospitalean jarraitzen zuenez aita eta bera etxean geratu ziren.

Hemendik ibili garen egun guzti-guztietan joan gara ama bisitatzera, beti dago ohean eta beti oso nekatuta dagoela dirudi (ez dut ulertzen); baina beti du irribarre bat Mikel eta niretzat. Nik besarkada handi bat ematen diot egunero, baina ez nago oso ziur funtzionatzen ote duen.

2009ko azaroaren 2a

Gaur aitari amak zer duen galdetu diot, baina entzun ez balu moduan jokatu du (baina nik badakit entzun duela). Haserretu egin naiz. Nik amak zer gaixotasun duen jakin nahi dut amari sendatzen laguntzeko. Agian besarkada bat ez da nahikoa, baina bi edo hiru emanez gero… beharbada hobeto jarriko da…

Nire gelan haserre nengoela Mikel sartu da. Berak badaki amak zer duen, jada 14 urte ditu. Mikelek esan dit oraindik txikia naizela horrelako gauzak ulertzeko eta berak kontatuko didala amak zer duen handiagoa egiten naizenean.

Jada Mikelek eta nik ez dugu borrokarik egiten eta orain oso atsegina da nirekin, baina batzuetan aitarekin eztabaidatzen du (gero eta gehiago).

2010eko otsailaren 9a

Gaur triste nago. Aitak esan dit amari ematen zioten sendagaiak ez duela funtzionatu eta amari ebakuntza egin behar diotela datorren astean.

Arratsaldean izeba etorri da eta amari ebakuntza egin bitartean gurekin geratuko dela esan digu. Horrek zertxobait poztu nau, izeba oso alaia da eta bera dagoenean Mikelek eta aitak ez dute hainbeste eztabaidatzen.

2010eko otsailaren 17a

Duela hiru egun egin zioten ebakuntza amari, eta gaur Mikel eta izeba bisita egitera joan dira, baina niri ez didate utzi. Txikiegia naizela diote! Nik nire ama begiak zabaldu nituenetik ikusi dut eta orain bat-batean txikiegia naiz bera ikusteko. Ez ditut helduak ulertzen.

Aitarekin OSO haserre nago eta hori gutxi balitz gaur eskolan azterketa sorpresa izan dugu. Aurtengo irakaslea ez zait batere gustatzen.

Gaurkoa egun gorrotagarria izan da!

2010eko ekainaren 12a

Gaur Mikelek izugarrizko eztabaida izan du aita eta izebarekin. Ni beldurtu egin naiz eta idazteari ekin diot, baina egia esan, ez dago zer idatzi handirik. Laster klaseak amaituko ditugu eta uztailean udalekuetara joango naiz.

Denak berdin jarraitzen du, amak ospitalean dirau eta ez didate ikustera joaten uzten. Faltan botatzen dut. Aita eta Mikel beti eztabaidan dabiltza eta izeba konpondu nahian. Aurrekoan izeba eta aita hizketan entzun nituen. Izebak zioen Mikelek arrazoi zuela eta aitak ez zuela ulertzen erantzun zion.

2010eko uztailaren 16a

Gaur ama hil da. Ni udalekuetan nengoen eta izeba nire bila etorri da. Aitarekin egon naizenean, betiko gauza bera esan dit, txikia naizela eta ez dudala ulertzen. Baina nik oso ongi ulertzen dut dena. Ez dut ama berriro ikusiko, ez dut inoiz berriz penak sendatzeko bere txokolate bokadilorik jango…

Beraiek ia egunero ikusten zuten ama ospitalean, baina niri ez zidaten sartzen uzten. Beraiek agur esateko aukera izan dute… eta nik ez.

Izebak garrantzitsuak iruditzen zitzaizkidan gauzak idazteko esan zidan, eta hau da ordudanik gertatu zaidan gauzarik garrantzitsuena, baina jada ez daukat idazteko gogorik. Aitak esan dit neska handiek ez dutela negarrik egiten, baina agian arrazoi du, agian txikiegia naiz, ze egin nahi dudan gauza bakarra negar egitea da.

—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—:—.—:—

2015ko uztailaren 16a

Gaur bost urte bete dira ama hil zela. Aspaldi zen ez nuela ezer idazten, baina egia esan, gaur txikitan idatzitakoa gogoratzean, oroitu naiz gustatzen zitzaidala izebak oparitutako egunerokoan idaztea.

Orain badakit sentimenduak idazten, eta ez da hirugarren mailan ikasten den zerbait, bakoitzak bere kabuz ikasten du, denok ezberdinak baikara.

Ama hil ostean, izeba gurekin bizitzen geratu zen. Hasieran ez nuen ulertu, baina gero ulertu nuen nik Mikel behar nuen beste behar zuela aitak izeba. Lehen urtea gogorra izan zen, baina poliki-poliki gaindituaz joan gara.

Gaur egun garrantzitsua izan da, horregatik idatzi dut berriz. Gaur Mikelek egia kontatu dit, aspaldian agindu bezala.

Amak kantzerra izan zuen buruan (baina hori aspaldi esan zidaten). Tratamendua oso gogorra zen eta horregatik egon zen ospitalean hain luze, baina funtzionatu zuen. Eta azkenean tumorea ondo kontrolatuta zutela ikustean, ebakuntza egin zioten.

Hasieran, ebakuntza oso ongi joan zela ematen zuen, baina esnatu zenean ez zen ezertaz oroitzen, ezta inor ezagutzen ere. Memoria guztiz galdu zuen. Itxura denez ebakuntza ez zen hain ongi atera, eta buruko beste gune batzuk

kaltetuak izan ziren tumorea kentzerakoan. Eta hori izan zen bere heriotzaren arrazoia.

Orain ulertzen dut aitak zergatik ez zidan uzten ama ikustera joaten; ama ez zen nitaz oroitzen, ez ninduen ezagutzen. Eta orain eskertzen diot, nahiago dut nekeari aurre eginez irribarre egiten zidan ama gogoratu, ezagutzen ez ninduena baino. Baina nahiago nukeen erabaki hori nire esku utzi izan balute.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Laugarren taldea

2. saria

Maitane Muruamendiaraz Arana

Jone, ez zaude bakarrik!

Jone, ez zaude bakarrik!

–Aimarrrr! Esna zaitez! Goizeko zortziak dira eta berandutu egingo zaizu! –oihukatu zidan amak.

Oso gustura nengoen ohean, baina banekien ez banintzen segituan ohetik jaikitzen, ama izugarri haserretuko zela. Oso nekatuta nengoen, baina ostirala zela jakiteak, ohetik altxatzen lagundu zidan. Bart oso berandu oheratu nintzen, berandurarte egon bainintzen telebista ikusten.

Ohetik jaiki bezain laster sukaldera joan nintzen gosaltzera. Bertan, ama, aita eta Maialen nire arreba zeuden gosaltzen. Egun ona opatu nien guztiei eta gosaltzen hasi nintzen. Nire arreba ni baino lau urte txikiagoa da, hau da, zortzi urte ditu. Batzuetan haserretu egiten gara, baina normalean ondo moldatzen gara.

Gosaldu eta gero, jantzi eta Maialen eta biok eskolara abiatu ginen. Maialen eta ni ez gabiltza eskola berean, ni aurten institutuan hasia bainaiz, baina, bai nire institutua baita Maialenen eskola ere, bata bestearen aldamenean daudenez, egunero elkarrekin joaten gara. Bederatziak puntuan heldu nintzen ikasgelara, irakaslea iritsi aurretik. Ni neure lekura abiatu nintzen eta bidean nire ikaskideak agurtu nituen. Zerbait arraroa sumatzen nuen, baina momentu horretan bertan Matematikako irakaslea sartu zen atetik eta klasea ematen hasi zen. Badakit zer zen arraroa! Jone, nire txikitako lagun mina nire alboan esertzen dena, ez zela egun horretan klasera etorri. Oso arraroa zen, Jone ez baitzen inoiz berandu ailegatzen institutura, oso neska arduratsua eta

puntuala zen eta. Gaixorik egongo zela pentsatu nuen, baina, edonola ere, arraroa zen. Gaixorik egonez gero edo medikuarengana joanez gero, ziur nago aurretik deitu egingo zidala hori esateko. Arratsaldean, klaseak bukatu bezain pronto korrika irten nintzen institututik, ikaragarrizko gogoa bainuen etxera heldu eta Joneri deitzeko, eskolara ez joatearen zergatiaz galdetzeko.

Etxera heldu nintzenean, korrika joan nintzen mugikorraren bila, mugikorra hartu eta egongelako besaulkian jarri nintzen, lasai eta patxadaz hitz egiteko. Joneren zenbakia buruz dakidanez, zenbakia markatu eta deitzen hasi nintzen, baina erantzungailua irteten zen behin eta berriz. Hurrengo egunetan ere ez zen Jone institutura azaldu, eta egunero telefonoz deitzen saiatu arren, alferrik, Jonek ez zuen erantzuten. Galizian zuen amona hil ote zitzaion pentsatzen hasita nengoen.

Handik egun batzuetara, institutuan, lehenengo bi klaseak eman ondoren eta atsedenaldi ordua baino lehen, tutorea etorri zitzaigun, berri txar bat zuela esanez. Aurpegi tristez eta malkoei eutsi ezinik, Jonek, gure ikaskideak minbizia zuela eta ospitalean zegoela jakinarazi zigun. Hotzikara batek gorputza astindu zidan. Ikaskide guztiak zer esan jakin ezinik gelditu ginen isil-isilik. Atsedenaldi osoa negarrez pasa nuen, eta nik bezala beste askok. Etxera heltzean amari kontatu nion eta amak Joneren amari deitzea pentsatu zuen. Ordu erdi luze berarekin hitz egin ondoren, telefonoa zintzilikatzen zuela sumatu nuenean, berriren bat jakin nahian, amari hurbildu nintzaion:

–Zer esan dizu bada, ama?

–Giltzurrunetan tumore bat aurkitu diotela eta datorren astean giltzurruna kentzeko ebakuntza egingo diotela. Hala ere, gogorrena gero etorriko dela, sei hilabetean zehar kimioterapia saioak jaso beharko baititu.

Asteak joan asteak etorri, Jonerengan pentsatu besterik ez nuen egiten, oso azkar gertatu baitzen dena. Jone pertsona indartsua zen eta ziur nengoen sendatuko zela baina, hala ere, oso gaizki pasatzen egongo zela burura etortzen zitzaidan, behin eta berriz . Ospitalean ez zuen bisitarik nahi izan, baina etxera bueltatu bezain pronto telefonoz deitu zidan, institutuko berri jakin

nahian. Handik aurrera egunero joaten nintzaion, institutuan egiten genituen lanak eramatera eta bisitatxo bat egitera. Batzuetan oso urduri eta triste aurkitzen nuen, beste batzuetan berriz itxaropentsu. Nik, beti ere, sendatuko zela esaten nion, oso pertsona indartsua eta borrokalaria zelako. Ebakuntza ondo atera zen baina artean zailena falta zitzaion, tratamendua, "kimioa" hartu beharra baitzuen medikuen esanetan, guztiz sendatzeko. Hilabete batzuk pasa ondoren, behin, irakaslea sartu zen ikasgelan eta berri on bat zuela esan zigun, Jone kimioaren laguntzaz sendatzen ari zela. Guztiok irribarrea ahoan genuela poz-pozik txalotu genuen albistea. Baina, hala ere, arazo bat zegoela esan zigun, Joneri, kimioaren ondorioz, ilea erortzen hasi zitzaiola eta oso triste eta goibel sentitzen zela, institutura bueltatzeko beldurrez. Irakaslearen azken hitzek gaizki sentiarazi ninduten, Jonek ez zuelako merezi gaizki pasatzen egotea eta banekielako bizipoza zela bere ezaugarria. Jone zenbait asteren ondoren etorriko zen institutura, baina lotsatuta eta umiliatuta sentituko zela pentsatu nuen. Zerbait egin behar nuen Jone pozik eta alai etortzeko institutura. Gau osoa pentsatzen igaro eta gero ideia bat otu zitzaidan. Hurrengo egunean ikaskideei proposatuko nien eta ados egotea espero nuen. Hurrengo goizean goiz jaiki nintzen, nire ikaskideei proposamena egiteko irrikatzen bainengoen. Institutura ailegatu bezain laster, klasean sartu eta jolas-orduan gauza bat proposatu nahi niela esan nien ikaskideei. Jolas-ordua iritsi zenean ikaskide guztiak klasean gelditu ziren nire proposamena entzuteko. Nire lekutik jaiki eta hau esan nien:

–Guztiok dakizuen bezala, Jone sendatzen ari da eta laster institutura etorriko da. Sendatzeko behar izan duen kimioak ilea erortzea eragin dio. Irakasleak esan bezala, oso triste eta motibaziorik gabe sentitzen da, baita lotsatuta ere. Jone etortzen denean, bera ongi sentitzeko pentsatu dudan ideia bat proposatuko dizuet. Proposamena honako hau da, guztiok ilea moztea eta horrela Jone arraro ez sentitzea eta berarekin gaudela sendatu arte erakustea.

Denak nire proposamenarekin ados zeuden eta ideia ona iruditu zitzaien. Hurrengo egunean, goizeko bederatzietan klasera heldu bezain laster burusoilak besterik ez nituen ikusten. Denok ilea moztu genuen eta oso harro sentitzen ginen egindakoaz.

Ipuinak

Irakasleak klasera sartzean izugarrizko sustoa hartu zuen gu gisa horretan ikustean eta, jarraian, hurrengo egunean Jone institutura etorriko zela esan zigun eta hainbat aholku ere eman zizkigun. Joneri, bere itxurarengatik ezer ere ez aipatzeko eta galdera asko ez egiteko eskatu zigun irakasleak. Natural jokatzeko esan zigun.

Ikaragarrizko poza hartu nuen Jone etorriko zela jakitean eta hurrengo eguna noiz ailegatuko desiratzen nengoen. Etxera ailegatu bezain laster amarengana joan nintzen egun horretan gertatutako guztia kontatzera, nola ikaskide guztiok ilea moztu genuen Joneri laguntzeko, eta nola hurrengo egunean Jone klasera etortzekoa zen. Azkenean iritsi zen hainbeste desiratzen nuen eguna. Egun hartan, ez zen ama etorri behar izan ni esnatzera, betiko moduan. Egun hura heltzeko hainbeste gogo nuenez, normalean baino askoz lehenago esnatu nintzen. Inoiz ez nuen pentsa izango hau esango nuenik, baina eskolara joateko desiratzen nengoen. Azkenean, goizeko bederatziak iritsi ziren eta klasean sartu nintzen lagun batzuekin batera. Bakoitza gure lekutan eseri ginen eta orduantxe bertan irakaslea sartu zen atetik. Klasera sartu, ikasgelaren erdian jarri eta hau esan zuen:

–Jone etorri da. –Denok poz-pozik oihukatzen hasi ginen, pozez txoratzen geunden eta. –Lotsa ematen dio etortzeak, baina ziur nago zuek denok burusoil ikustean asko poztuko dela eta berari laguntzeko egin duzuela ikusiko du.

–Esaiozu sartzeko! –esan nion irakasleari ezin bainintzen geldirik egon. Jone ikusteko desiratzen nengoen.

Hori esan eta, jarraian, norbaitek atea ireki zuen. Jone zen, buruan zapi bat zuen jarrita baina beti bezain polit zegoen. Jone, atetik sartu eta gu ikustean harridura aurpegia jarri zuen eta pozaren pozez negarrez hasi zen. Denok korrika eta lasterka, pozez txoratzen Jone besarkatzera joan ginen. Malkoei eutsi ezinik nengoen, bera ospitalean egon zen bitartean asko bota nuelako faltan eta orain bera besarkatzen egoteak eta ondo zegoela jakiteak asko hunkitu ninduen. Behin eta berriro burua ukitzen zidan eta berarengatik egin genuen guztia nola eskertu ez zekiela esaten zidan.

Udaberri aldera, loreak hazten diren lez hazi zitzaigun guri ilea. Erabat eraberrituta sentitu ginen, are gehiago, Jone, medikuek ziotenez, tratamenduaren ondorioz zeharo sendaturik zegoen eta. Aurrerantzean gogor ikasiko zuela garbi zuen, mediku izatera iristeko eta hainbat gaixori lagundu ahal izateko.

Ikasturte hartan betiko ikasgaiez at gure bizitzako leziorik garrantzitsuena ikasi genuen, arazoei aurre egin behar zaiela etsi gabe eta zein garrantzitsuak diren adiskidetasuna elkartasuna eta itxaropena.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Laugarren taldea

3. saria

Gaizka Morales

Amaren gutuna

Amaren gutuna

2003ko maiatzaren 10a

Aspaldiko:

Badakit azken hilabeteetan ez dudala mezurik bidali. Agian, umetxoa nagusi egiten ari delako eta egia jakiteko beldurrez nagoelako edo lotsagatik, orain inoiz baino gehiago damutzen ari naizelako. 7 urte betetzen ditu laster eta bere bizitza osoa gezur handia da, eta izan da.

Badakit ezin diozuela ezer esan nire partez, baina nire mutikotxoa ongi egotea espero dut. Mesedez, ondo zaindu. Gutun gehiago bidaliko dizkizuet

Berriro ere barkamenak eskatzen dizkizuet.

Agur.

Ama damutua.

Gutun hau aurkitu zuen Harkaitz gazteak bere urtebetetze egunean, oparia bilatzen zegoela. Gutuna irakurtzen zegoenean ezin zuen sinetsi, begiak zabaltzen hasi zitzaizkion eta ahoa itxi ezinda gelditu zitzaion.

Irakurtzen bukatu ondoren, segundo batzuk igaro ziren umearen burutik ezer igaro gabe, baina berari minutu luze asko iruditu zitzaizkion.

Erreakzionatzea lortu zuenean sukaldera joateko eskailerak jaisten hasi zen, buruari bueltak ematen. Azkenengo eskailera jaitsi behar zuen, baina etxeko andrea ikusi ondoren berriro ere gutuna etorri zitzaion burura, eta bere ama ez zela gogoratu zuenean logelara itzultzea pentsatu zuen, lotan balego bezala. Baina igotzen hasi aurretik, ikusi egin zuten eta urtebetetzea ospatzen hasi ziren abestuaz eta belarrietatik tiraka, gazteak gogo handirik ez zuen arren.

Gosari denboran mutikoak musu serioa zeukan baina inork ez zion ezer ere esan, eta emakume hori bere ama ez zela pentsatzen zuen bitartean ezin zuen sinetsi.

Bere urtebetetzea izan arren, egun osoa etxean igaro zuen bere logelan sartuta, aurkitutako mezuari begira eta begira, bere ama nolakoa izango zen, non egongo zen eta zergatik alde egin zuen pentsatuz.

Gaueko 9ak ziren, eta zapatu aspergarri hura bukatu zen. Gaztea ohean sartu eta ...

…beste mundu baten zegoela ematen zuen, ez zen bere herri txiki eta animaliaz betea, ez, hiri handi bat zen, dorre altuz eta autoz betea. Umeak bakarrik toki baten ikusi zituen horrelako tokiak, telebistan. Orduan, hiri horretan zegoela, espiritu bat balitz bezala, hiriko soinuak nahiz mugimenduak sentitu gabe, bere ama ikusi zuen arropa denda batetik irteten. Bere ama zela jakin zuen distira berezi bat zuelako. Baina, gazteak ezin zuen ezer egin, isiltasuna zegoen eta ezin zen mugitu. Kamera bat balitz bezala zegoen bertan. Dena ikusten, ezer sentitu gabe, eta orduan …

…Esnatu egin zen.

Gutuna ikusi zuenean baino musu harrituagoa geratu zitzaion eta amets hori inoiz edukitako errealena zela pentsatu zuen. Momentu horretan telebistan eta aldizkarietan begiratzen hasi zen eta aurkitu egin zuen: New Yorkeko *Wall Street* zen.

Harkaitzek bere amaren bila joan behar zuela pentsatu zuen, baina 8 urte baino ez zituen eta nola egin ahal zuen ?

Orduan ideia bat eduki zuen, aireportura joango zen eta bertan, poltsa eta animalia kaiolen artean sartuko zen. Harkaitz gaztea 11:00etan abiatu zen, bere plana ondo irteteko esperantza gutxirekin.

Eguerdiko 13:00ak ziren eta etxeko andreak Harkaitzi deitu zion:

–Bazkaltzera!

Inork kasu egiten ez zionez berriro ere deitu zion:

–Harkaitz etorri bazkaltzera!

Bigarrenean ere inork kasu egiten ez zionez, gora igotzea pentsatu zuen, eta eskaileretatik gora zihoala isiltasuna sumatu zuen Harkaitzen logelan. Sartu eta bi orri ikusi zituen ohe gainean. Lehenengoa hartu eta gutun bat ikusi zuen, Harkaitzen letrarekin idatzia, eta horrela esaten zuen:

Ezin dut hemen jarraitu, dena dakit, egia osoa, eta nire ama aurkitzera noa. Eskerrak ematen dizkizut egin didazun guztiagatik, eta zure semea banintz bezala tratatzeagatik .

Agur.

Eta bigarrena, amaren gutuna zen. Etxeko andreak ezin zuen sinetsi umea pentsatzen zegoena egiteko gai zela.

Gaztea aireportura iritsi eta bi gizonen artean sartu zen beraien bi txakurren kaiolen artetik hegazkineko poltsa-gelara sartzeko. Denbora luzea igaro zuen eta hegazkina gelditu zenean, bainugelatik irten zen emakume batekin joan zen, bere semea balitz bezala. Azkenean New York zapaldu zuen.

Hiri hori oso handia zen eta dorre altuen ondoan jarrita inurri bat zela pentsatzen zuen. Kale luze asko igaro ondoren heldu zen. Ametsean ikusi zuen tokira heldu zen eta hor itxaron zuen arropa dendetako erlojuetan 18:31 ordua jarri arte, ordu hori baitzen bere ametsetan agertzen zena.

18:30 ziren eta oso gutxi falta zen. Orduan, erlojuko ordua aldatzeaz batera, neska ilehori bat irten zen dendatik eta beragana abiatu zenean besarkada bat eman nahi izan zion, baina dena gelditu zen. Mugimendu eta hots guztiak gelditu ondoren, zera entzun zuen:

–Harkaitz! Harkaitz!

Harkaitz txikia bere urtebetetze egunean esnatu zen adingabekoen instalazioko langile guztiak bere ohearen ondoan zeudela.

Harkaitz 8 urteko umezurtza da. Bere ama auto istripu baten hil zela pentsatzen dute, 1998an, Harkaitz gazte-gaztea zenean. Eta momentu hartatik adingabeko zentro baten dago bertako langileekin.

Beti edukitzen du amets berbera. Bere amarekin topo egiten du mezu arraro bat aurkitu ondoren eta besarkada bat ematera doanean dena geratu eta esnatu egiten da.

Orduan Harkaitz oihuka hasi zen:

–Ez, berriro ez!

Langileek dena azaldu zioten gazteari:

–Lasai egon Harkaitz, betiko ametsa eduki duzu baina lasai, dena pasatu da. Gu bagoaz, zerbait nahi baduzu, deituiguzu. –eta langileak logelatik joan ziren.

Orduan Harkaitzek ohe ondoko kaxan ezkutatuta zeukan gutuna atera zuen. Gutun hura bere amarena zen eta Harkaitz txikia zenean, zentrora joan aurretik bizi zen etxera heldu zen 2003ko maiatzaren 10ean.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Bosgarren taldea

1. saria

Maddi Iñarra Ibarguren

Maitasun likidoa

Maitasun likidoa

Bihotz apurtuen zabortegian ezagutu nuen, herriko *crème de la crème* batzen den tabernako barran, komuneko girotzailearen lurrina eta tabakoa saltzeko makina testigu zirela. Astegun bateko ordu txikiak ziren eta, hala ere, barrako eserleku altu guztiak denbora hiltzera edo besterik gabe hiltzera joanak ginen arima grisez okupaturik zeuden. Gaueroko antzerki berbera. Betetako kopek eta hustutako bihotzek osatzen zuten dekoratua. Dekoratu dekadenteegia maitasun istorio eder batendako, baina maitasuna horrela iristen da; ustekabean, txanpon makinetako sariak edo heriotza bezala.

Gizaki jaio nintzen, baina bizitzak basapizti egin ninduen. Elkar maite ez zuten eta maite ez ninduten guraso batzuen seme, beti izan nuen akats bat nintzen sentsazioa. Bizitzeko eta are gutxiago zoriontsu izateko eskubiderik ez nuela sinisturik, existentzia lauso eta suntsitzaileak jarraitu ninduen beti. Maite ez ninduen familia, ulertzen ez ninduten lagunak, gustuko ez nuen

lana… Gutxietsia eta alboratua sentitzen nintzen alor guztietan eta gizartea, mundua eta bizitza bera gorrotatzera iritsi nintzen. Ez nuen maitasunik ezagutu eta diru-truk asetu behar izan nuen haragiaren beharra. Antzeztuak izan ziren bizitzan jaso nituen laztan bakarrak eta noizbait benetako zerbait sentitzeko esperantza galdu nuen, bera ezagutu arte.

Basapiztiak batzen ziren tabernara joaten hasi nintzen ni ere basapizti sentitzen nintzelako. Asteburutako aitzakiarekin lehenengo, inertziaz berehala. Kalean bai, baina zoo-an ez dute atentziorik deitzen otso edo bufaloek. Ni bezain etsita edo are etsiago zegoenik ere bazela ikusteak kontsolamendu zentzugabe bat sorrarazten zidan, eta berehala harrapatu ninduen besteen ondoezak eta alkoholaren ongizate sentsazio faltsuak sortutako koktel hark. Nork epaitu behar gintuen, orbanez beteriko moketa zaharkituak? Nahi baino gehiago ikusitako komuneko ispiluak? Antiheroiez beteriko film hartan ez zegoen zuzendari edo gidoigilerik; zurrutadaz zurrutada erabakitzen zen hurrengo eszena, eta ez zegoen norberaren duintasuna baino zentsura gehiagorik. Zer esanik ez duintasuna sartu orduko esekitokian uzten genuenik.

Ohikoak ziren borrokak, gehiegizko edanak eragindako konorte galera eta erorketak, bezero "duinen" nazka eta pena begiradak… Baina berdin zitzaigun guztia. Denok ere laino bera genuen buru gainean: etsipena, ilusio eza, bizitza edo heriotzarekiko indiferentzia. Dibortzioa, langabezia, zorrak, bakardadea, amorrua, frustrazioak, bizitzan aktore baino ikusle izanaren sentsazioa… bakoitzak bere arrazoiak zituen gaueroko zitara ez huts egiteko. Beti berdinak batzen ginen, baina ez genuen elkarrekin hitz egiten. Ez genekien albokoaren izenik, bai ordea bakoitzak zein arma generabilen galtzaileak baino sortzen ez zituen barne gerra hartan. Terry, Chivas, M.G edo Smirnoff ziren egunero zertxobait gehiago hiltzen gintuzten balak. Inorekin borrokatzeko indar eta gogorik gabe, gure buruaren aurka egitea baino ez zitzaigun gelditzen eta edaten genuen dirua xahutu edo konortea galdu arte, lehenengo gertatzen zena.

Gau horietako batean ezagutu nuen. Gainontzekoengandik bat ere bereizten ez zen egun amorragarria pasa eta gaua iristean, beti bezala txanpon eta bilete ximurtu batzuk patrikan sartu eta zoo-ra joan nintzen basapizti artean

kamuflatzera, nire itxura edo usainagatik gehiegi arduratu gabe. Begirada galdua soinean, betiko aulkian eseri nintzen betiko errituala betetzeko. Gau hartan ordea ohi baino burumakurrago nengoen eta azkarregi xahutu nuen diru apurra. Ezer eta inor zain ez duenarentzat beti goiz izanik, etxera itzultzearen ideia alboratu eta ingurura erreparatu nuen.

Bi neska gazte zeuden barra alboko mahai batean eserita. Asteburuetan bai, baina asteko ordu txikietan arraroa zen halakorik ikustea. Hienak esnatzean lotara joaten ziren basakatu lirainak, baina, despistaturik edo, han ziren oraindik trago banarekin. Elkarrekin hitz egiten ari ziren zurrutada artean barre eginez, gustura eta pozik. Film bat ikusten ari banintz bezala gelditu nintzaien begira; horren urruna egiten zitzaidan ongizate sentsazio hura ezen fikzioarekin bakarrik lotzen bainuen. Zahar lizun bat nintzela pentsatuko zuten akaso begira-begira adurra zeridala gelditu nintzenean, baina esku artean zituzten kopekin ari nintzen amesten beraien gorputzekin baino gehiago. Zein zapore ote zuen beharragatik baino gehiago plazerragatik edango zen trago hark? Beldurturik edo, urre garden hura amaitzeko denbora hartu gabe alde egin zuten bi neska gazteek eta nik ez nuen inongo erreparorik izan inoren hondarrei heltzeko.

Pozoi merkeenarekin ohituta zegoen ahosabai hura berehala erotu zen nektar fin harekin. Nik ahazteko edo edaten nuen eta edozerk balio zidan, baina argi zegoen trago hura dastatzeko egina zegoela; emakume baten azal leuna bezala, poliki xurgatzeko, mihiarekin leun laztantzeko plazerrez mozkortu arte. Maitasunak horrelako zerbait behar zuela izan otu zitzaidan bapatean: ez beharragatik edo bakarrik ez sentitzeagatik edaten den edozein botila merke; baizik eta poliki, irribar artean eta konpainia onean gozatzeko hautatzen den gustuko likorea.

Agian tonika mikatzaren alboan bizitza gozoago iruditu zitzaidalako. Agian izotzaren hotzak nire gorputzaren berezko berotasunaren kontzientzia itzuli zidalako. Edo agian beira lurrunduan irristatzen ziren tantek negar egiten nuen bakarra ez nintzela gogorarazi zidatelako. Agian horregatik maitemindu nintzen betirako eta heriotzak banandu arte Gin-tonic hartaz.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Bosgarren taldea

2. saria

Ana Moñux Txintxurreta

Erantzunen galderak

Erantzunen galderak

Esan nahia eta ezina baino sentsazio okerragorik ez dago.

Ez naiz mutua. Horregatik haserretzen naiz ezintasun hau sentitzen dudan bakoitzean. Bizitza horrela konplikatzeagatik.

Beraien ahotsen jabe ez diren pertsonak etortzen zaizkit burura, edo aurrean daukatena ikusi ezin dutenak; honen gainean inongo kontrolik eduki ezinik. Beraien gaindiko indar batek kondenatuta.

Baina frankoa izan behar badut, pentsamendu hauek bortxatuak izaten direla aitortu behar dut. Bakoitzak bizi duenaren arabera neurtzen du bere sentitzea; bada ni, buru nahasteak asmatu ahal dituen pribilegiatu horietakoa naiz. Soka hartu eta bueltaka-bueltaka jardunaz, bere gorputza korapilo barruan uzten duen andere zilbor handiduna.

Horrela nenbilen egun hartan ere, nire ezinegona eusteko ahaleginetan; telefonoaren soinuak nire arreta desbideratu zuen arte.

–Bai? –galdetu nuen.

–Bai? –galdetu zuen berak.

–Nor da? –nik berriro.

Luze xamarra egin zitzaidan isiltasun arraro baten ostean, hitz egiten hasi zen:

–Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?

Ezer erantzuteko denbora izan aurretik telefonoa eskegi zutela ohartu nintzen; egongelako mahai txikiaren alboan belauniko jarraituz. Ahotsa guztiz ezezaguna zen, ez nuen inorenarekin identifikatzen; baina bazen familiarra egiten zitzaidan zerbait dei hartan…

Kafesne bero azukretu bat prestatu eta sofan eseri nintzen, zein izan zitekeen buruari bueltaka. Gaizki enfokatutako irudiek izaten duten forma distortsionatu berberaz, hitz haiek nire baitan zuten oihartzun bero-goxoa ulertu nuen. Mikel Laboaren lehen galdera zen hura!

Korrika ordenagailura jo eta kanta bilatzeari ekin nion. Urduri nengoen, eta aldi berean azeleratuta, dei labur hark esnarazi banindu bezala. Aspaldi sentitu gabeko haur kuriositate batekin.

Aurkitu nuen kanta! Zirrara biziz lurrean etzan nintzen letraren bigarren zatiaz gogoeta eginez; *ala hemen bezala mutu al diraute telefonoak*. Ez nuen gogoratzen telefono dei batek azkenekoz nire barrua asaldatu zueneko eguna. Egunero deitzen ninduen norbaitek baina ezer berezirik ez; ama, lagunen bat, telefono konpainia madarikatuak edo laneko arazoren bat.

Ari nintzen berriz ere andere pribilegiatuaren lekutik begira, nitaz oroitzen ziren lagunak eta maite ninduen ama bat izatearen zortea gutxietsiko banu bezala. Baina ez zen hori kontua.

Kontua monotonia zen. Nire bizitzako egun bakoitzean gertaera berberak edo antzekoak espero izatearen asperdura. Noizbait, nonbait galdu nuen pasioarekiko begirada malenkoniatsua. Hori zen kontua. Ezustea. Goiza pusketatan apurtzea. Hitz batzuen norakoa jakiteko grina. Egun grisa zirudien hark, berriz ere oparitutako Laboa. Zenbait hitz nolanahi galtzen ez direla ohartuz.

Nor ote zen? Zergatik deitu zidan niri? Eta galdera hura; zertara zetorren? Nire telefonoa zaharra zen, eta ez zuen zenbakiak identifikatzeko gailurik. Baina agian konpainiakoei hots eginda deiaren jatorria erraztu ziezadaketen; helbidea eman ezean ere, behintzat zein zenbakitara deitu jakin nezan. Agian ez zen txantxa hutsa baino: dibertitu nahi zuen norbait; edo pelikuletara jolastu

nahi zuen ameslari frustraturen bat, bizitzak hainbesterako ematen ez zuela konturatu arren, etsitzeko asmorik gabea. Edo baliteke ezagutzen ninduen norbait izatea, arrazoiren batengatik nitaz gogoratu eta astearte buruzuri bat koloreztatzeko asmotan zebilena.

Milaka hipotesi desberdin biraka nituen burmuinean, baina ezagutzen ninduen norbait izan zitekeenaren usteak ene bizi denboraren errepasoa ekarri zuen, egongelako beroa izoztuz. Hogeita hemeretzi urte esaten erraza den arren, adin horretara iritsi ez den inork ez daki ordurako zenbat arantza pilatu daitezkeen bularraren ezkerraldean; gogortu beharrean bigunduz. Baina ez da beti horrela izan. Badira bizitza nire hatzaparren puntetan sentitzen nitueneko egunak, orain leku berberetik ihes doala sumatzen dudan bezala. Sartu zen lekutik ateraz. Nire gogoaren kontra den ala ez zalantzan jartzen dut. Baina ez naiz orain horretan sartuko!

Auto-kontakizun hartan nenbilen erlojuko kuku hotsak errealitate gordinera itzularazi ninduen arte: asteartea zen eta goizeko hamarrak eta laurden ziren. Korrika dutxa bat hartu, jantzi eta lanerantz abiatu nintzen nagusiarentzako aitzakia bat asmatu bitartean. Kotxea inoiz baino motelago gidatzen niharduen, nire distrakzio mentalak inongo ezbeharrik eragin ez zezan.

Semaforoa gorri tokatu zitzaidan etxe ondoko bidegurutzean. Amona ile zuridunak gurutzatu zuen zebra bidea, harro-harro bere ilobatxoaren eskua indarrez eutsiaz. Egindako galdera etorri zitzaidan orduan burura, eta hitzotan pentsatzen hasi nintzen. Zoriontsuak al gara mugaz bestaldeko biztanleak? Berdea jarri zen. Gero berriz laranja. Klaxon hotsek ere ezin izango ninduten errepidera itzularazi. Hala moduz, kotxea baztertu eta larritasunez hanka egin nuen edozein norabidetarantz.

Zenbat aldiz egin ote nuen bide bera…! Irratiko musika guztiaz ahazteko nahikoa aitzaki izanik, semaforoaren gorria eta berdea inertzia osoz jarraituz. Baina egun hartan betiko bidea ez zen zilegi.

Estutasun itogarri batek arnasa zailtzen zidan, eta buelta gehiago eman gabe, hiritik gertu gelditzen zen laku txikirantz abiatu nintzen oinez. Ez nuen

zementurik ikusi nahi, ez eta kotxeen kerik usaindu edo sirenen zaratarik aditu.

Bidean nindoala nagusia deika ari zitzaidan, eta hartu ezean geldituko zitzaidan zorra kitatu nahian, erantzun egin nuen.

–Bai?

–Epa! Non zabiltza? Denak zure zain daude!

–Bai….eh….ez noa.

–Eta hori?

–Ez naiz joango, gaur behintzat. Ez nago ondo, galdera gehiegi dauzkat buruan. Agur.

Eta eskegi egin nion erantzuteko betarik ere eman gabe. Nik bidea jarraitu nuen, kaleko zurrunbilotik aldendu ahala are lasaiago sentituz. Bitxia zen ekuazioa: zenbat eta urrunago joan orduan eta jende gutxiagorekin gurutzatzen nintzen, agure koadrilaren bat edo haurra paseatzen ziharduten ama hasi berriak besterik ez.

–Epa! Polita atera zaigu eguna gaurkoan!

–Nik ez nuen ahotsa ateratzeko borondaterik, baina irribarre egiten nien. Sosegua bazihoan pixkanaka nire gorputzaren jabe izaten, pieza bakoitza bere lekuan birkolokatzen ari balitz bezala. Honetan nenbilela mugikorra itzaltzea otu zitzaidan, eguna nireago egiteko edo. Zalantzak izan nituen momentu batez: *Norbaitek nire beharra badu? Edo zerbait larria gertatuz gero?* Ezin nituen gogoratu kezka hauek gabe bizi gineneko garaiak, momentuak berehalako *non zaude?* batekin apurtu ezin zireneko garaiak.

Itzali egin nuen azkenean. Han geunden, lakua eta ni eskuz esku. Goiz ederra atera zen, eguzkiak inguruko pinu arbolak islatzen zituen uretan eta txoriek kantu kantari ziharduten. Zigarro bat piztu eta aspaldiko partez ez bezala gozatu nuen.

Bat baino gehiago erre nituen eguzkipean.

Zerua lainotzearekin bat, nire ahots gorenak bisitatu ninduen. “Transgresore” senti nendin ahaleginetan zebilen, astearte batean inongo arrazoi errealik gabe nire betebehar guztiak alde batera uzteagatik. Arduragabe bat nintzela zioen, txoriburu bat.

Barruko faxista txikiaren leporatzeokin larrituta erlojura begiratu behar izan nuen.

Ezustean harrapatu ninduen bere gelditasunak. Hamarrak eta laurden ziren; ezinezkoa zen! Pilak gastatuko zitzaizkion. Finean ez zuen axola, eguerdia izango zen gutxi gora behera –gosea eta eguzkia ziren honen lekuko–. Eta ordu konkretua jakitea mugikorra piztea bezain erraza bazen ere, denboraren kontrol esklusiboaren ideiak tentatu ninduen. Bitxia zen behatzea nola erlojuaren orratzak gelditzean, nolabait denbora bera ere izozten zen. Beraiek ez baitzekiten ezer benetako denboraz, makinak besterik ez ziren, dena zenbakitan pilatu zitekeela uste zuten tramankuluak. Hain gelditzen ziren urrun gugandik… zenbaki guzti horiek ez zuten inoiz jakingo zein zoriontsu izan ginen beraien existentziaz oroitu ez ginen istant guztietan, edo plazer hutsagatik desobeditzea erabaki genuen bakoitzean…

Nire lantokian ordu biak inguru izango ziren, baita zementuzko kaleetan edo medikuaren kontsultan ere. Nik aldiz egun hartan denbora oparitu nion nire buruari, gorroto une batean lakuko sakonera jaurtiz erlojua, oparia egiten zuena nor zen inoiz berriro ez ahazteko.

Guzti honetan pentsatzen jardun nuen denbora luzez.

”Musua” deituriko Doisneau-ren argazki famatua etorri zitzaidan burura, nire arantzak konpentsatzeko balio izan duten laztanen eta besarkaden eternitatea dastatu bitartean. Inpotentzia pixka bat sortzen zidan hauen intentsitatea birbizitu ezin ahal izateak. Orratzak, oinazeak, ilusioak, ametsak. Bizitzaren eraberritzeek irensten zituzten erlojuen logikak. Milaka ziren horren adibide… zein ordu zen ximurrez betetako azal lehordun amonarentzat? Eta ama noiz iritsiko zen galdetzen zuen umezurtzarentzat? Zein erlojutara begiratu zezakeen lau pareten artean urteak zeramatzanak? Eta alaba galdu berri

zuen amak? Zein ordu zen behingoz bizitzea erabaki zuen gizon-robotarentzat? Eta senar jipoitzailea inoiz gehiago ikusiko ez zuen emakumearentzat?

Sekulako egarria sentitu nuen bat-batean. Inguruan ez zegoenez iturririk eta eguzkia ezkutatzen hasia zenez, bueltako bideari ekin nion. Behingoz hiria ez zegoen nire zain; hala ere, ez nuen beste aukerarik ikusten. Ezin nintzen lakuan gelditu denbora gehiagoz, hotza eta iluna agertuko baitziren berehala. Pausua narras alde egin nuen asfaltora.

Bueltakoan jende gutxiago zebilen ibilian, denak lanetik atera eta afaltzeko otordu bero bat sukaldatzen egongo ziren seguruenik. Hotzikara batek zeharkatu zuen nire gorputz txikia eta honen ostean tristura. Bakarrik ikusi nuen nire burua, etxera bueltan inor zain edukiko ez nuela jakinda. Egunak zerbait berria zin egiten zidala zirudien arren, denak berdin jarraitzen zuen. Ibaiaz bestaldeko taberna ilunak, paretan margotutako gizon beltzaranak eta semaforoen gorriak. Amaren etxera afaltzera joatea pentsatu nuen, bakardadea leundu eta lotara berotan sartzeko behintzat. Zinera ere joan nintekeen, dramazko pelikula bat aukeratu eta ezezagun baten alboan negar malkoak isurtzera; bere afizioak zeintzuk diren jakin nahiko ez banu bezala eginez. Edo agian tabernaren batera joan nintekeen, ziur alkoholak eguna borobiltzen lagunduko zidala mozkor xelebreren baten konpainian.

Ez. Ez zidan ezerk balio. Egarria benetakoa zen, eta inguruan ez nuen iturririk aurkitzen.

Kotxea aparkatu nuen lekura iritsi nintzen ordurako. Barrura sartu nintzen isunaren agiria zakarrontzira bota ondoren. Gaur KAUDIMENGABE deklaratzen nintzen.

Etxea astuna egin zitzaidan sofan eseri eta telebista piztu nuen arte. Nekatuegia sentitzen nintzen kontu hari buelta gehiago emateko, nahiago programa entretenigarri bat ikusi eta lotara sartzea. Bihar beste egun bat izango zen.

Gau hura ordea ez zen lasaia izan. Kostata hartu nuen lo, momentu batetik bestera, iluntasunari izkinak irentsiko zizkion norbait agertuko zen espe-

roan. Ametsa ametsaren atzetik. Nahasiak, izerdiarazten zaituzten horietakoak; baina izerdi tantak lehortuko zizkidaten esku leunik gabe almoada azpian Nire gorputz uzkurtua oheko paretaren kontra bultzatzen nuen, paretaren hotza ukitzeak oheko ezerezaren erdian hain bakarrik ez nengoela sentiarazten baitzidan. Aspaldi ez bezala oroitu nintzen amaz, txikitan bezala nire bekokia laztandu zezan desiratuz.

Presa biziz egunaren hasiera aurreratu nuen. Goizeko seiak besterik ez ziren sukaldeko mahaian marrubizko mermelada, tostadak eta kafesnea gertatu nituenean. Nire begi-zuloak bezain beltzak izan ziren fantasiak, eta gainera zetorkidan egunak ere ez zirudien batere oparoa.

Nekea, larritasuna eta jakin-mina; azken hau zentzurik literalenean.

Nor zen telefonoz bestalde ezkutatzen zen ahots malapartatu hura? Eta okerrena… Zazpi hitz inozente haiek nola bihurtu zitezkeen hain probokatzaile? Orri zurian idatzi nituen banan banan:

Esaidan

Zoriontsuak

Al

Zarete

Mugaz

Bestaldeko

Biztanleak

?

Logurari ezin eutsi, beste kafe bat gertatzen hasi nintzen publizitate kanpainaren ideiaren inguruan bueltaka hasi nintzenean. Perbertsoa bezain errealista zen susmoa. Coca-cola, bizi asegururen bat, loteria formako ilusio ekoizleak… Edozer kontsumitzaile potentzialen bihotz bakarti eta ahulak ferekatzearren…!

Ipuinak

Interneten bilaketa hasi nuen, bertan agertu ezean premisa faltsua izango zela banekielako. Tentuz jardun nuen begira, goizean goizetik txotxongilo sentitzearen desilusioa ekidin nahian.

Ezer ez. Oraingoan ez ziren beraiek izan.

Lanera joateko denbora nahikoa gelditzen zela ziurtatu ostean beste paper zuri bat hartu nuen. Nire bizitzan zehar pertsona berezi asko ezagutu nuen; baina hura egiteko bezain berezirik bai? Garrantziaren arabera sailkatu nituen izandako harreman desberdinak; bizitza zatitxotan banatu eta ordenatu ezin dela onartu nuen arte. Burutik pasatzen zitzaidan edozein hitz idazteari ekin nion orduan. Batzuk idatzi eta berehala ezabatzen nituelarik, sorpresari inongo aukerarik eman gabe. Polita zatekeen… Inoiz, inolaz ere egingo ez genukeena egiten dugunean bezain ederra.

Bigarrenekoz goizak bidaian ziharduen, han nonbait, ilargitik oso gertu.

Sei email eta hamazazpi mezu bidali nituen lanera abiatzeko ordua iritsi zen arte. Orduak ohikoa baino luzeagoak egin zitzaizkidan, une oro e-posta eta mugikorrari adi.

Eta egungo gizarte hiperkomunikatuari fidelak izanaz, ia guztiek erantzun zidaten; nahiz eta *aspaldiko, zer moduz zaude?* edo *besarkada estuak* besterik ez nituen jaso. Momentu hartan ia ilusiorik ere egin ez zidaten erantzun konbentzionalak, tamalez.

Behinola ahots batek nire intimitatea bortxatu eta erraietako azala urratu zuen eta jada erantzun arruntek ez zuten inoiz gehiago balioko. Haietakoren bat izatekotan ziur nengoen delitua aitortuko zuela nire zeharkako gonbiteari jarraituz.

Amaierako mezuek amorratzeraino sutu ninduten. Koldar zikin bat besterik ezin zitekeen izan nire asteartea lapurtu eta ondoren modu horretan ezkutatzen zen hura.

Ordenagailua itzali, atea itxi eta lankideak agurtu ondoren eskaileratan behera abiatu nintzen. Lehen solairura iristerako mugikorreko kontaktu guztiak

errepasatu nituen berriro. Inor ezaguna ez bazen ere, bi begi berri irudikatzeko beharra nuen. Ile horia ala beltzarana zen jakin. Ezpainen lodiera eta irri egiteko modua nolakoak ziren. Aurpegiera konkretu bat. Dena zegoen zintzilik, hitzok haizeak xuxurlatu balizkit bezala, deia nori itzuli jakin ezinik, igorlerik gabe.

Erosketa batzuk egin behar nituen dendak itxi aurretik, hozkailua gosez hiltzen egongo baitzen ordurako. Azokako okindegira hurbildu nintzen bertako dendari beltzaranaren berbaldi bila, ez baitzen hiri guztian bera baino goxoagorik, beti irribarre handi batekin ahoan. Nik uste gaixotasun kronikoa zela, irrist egiten zion nahigabe ere. Kurba erakargarriak zituen eta ipurdirainoko ilea; Uruguay edo Argentinakoa zen ezin desberdindu.

Zerealezko barra txikia besapean jarri bitartean nitaz agurtzen hasi zen. Ez ohi bezala ordea, betiko alde egingo duenaren seriotasunez baizik. Denbora gehiegi igaro omen zen familia azkenekoz dastatu zuenetik, eta alaba txikiaren ximurrekin amesten hasi zenetik eguna nekatuta hasten omen zuen. Amets gaiztoek gainezka egin aurretik bazihoan bueltan.

Pena handia eman zidan hiriak bere dendari goxoena galduko zuela jakiteak eta beratan pentsatzen egin nuen etxerako bidea. Bere zortzi urteko alaba irudikatu nuen telefonoak noiz joko zain. Bere amak esan zidanez hitz bat bera ere esan gabe pasatzen zituen egunak, mutu amaren ahotsa entzuten zuen arte.

Bitxia haurren mundua. Hori zioten behintzat pareta bakarraz separatutako mutuek. Baina ez zekitena zen, garapena garapen, beraientzat inoiz ezingo genuela telefonorik asmatu.

Nik nire dei partikularrari erantzun nahi nion, ez zidan ordea aukerarik uzten. Bigarren eguna zen eta ni ezinegona gainetik kendu ezinka! Zer ote betekada hura… Laboa zena eta nire oroitzak? Atxagak limatutako *zoriontsu* hitza edozein asteartetan? Guztia obsesiboki kontrolpean izateko beharra?

Ia etxeko atarira iristear nengoen buelta erdia hartu eta okindegira korrika itzuli nintzenean. Bere azken lan eguna zen eta aste betean bazihoan hegazkina hartuta. Harritu egin zen nire arnas estua eta izerditu aurpegia ikustean,

baina ez ordea bere etxeko telefono zenbakia eskatu nionean. Gustu handiz eman zidan, noizbait hara (Uruguaikoa zela konfirmatu nuen) joanez gero lasai dei egiteko esanez. Agian noizbait bere berri jakiteko deituko niola zin egin nion, eta papertxoa patrikan gordeta abiatu nintzen etxerantz.

Bihotz taupadak oso azkar sumatzen nituen, ahotik aterako bailitzaizkit bezala. Ez nintzen lasaitu etxeko egongelan eseri eta musika erlaxagarri bat ipini nuen arte.

Momentu berberean mugikorrera mezu bat: *Kaixo! Asko gustatu zait zure berri izatea hainbeste denbora eta gero! Nik ere zenbaitetan atzerantz begiratu ohi dut… Bestela dena primeran hemendik, bigarren semea izan dut eta pozez zoratzen nago. Besarkada handi bat. Zoriontsu izan!* Goizeko mezuei erantzuten zien ardi galdu bat. Jada etsita nengoen, ez nuen asmatzerik nor zen…

Egurrezko apala zaharkitutik liburu bat hartu nuen, okasiorako egokia zen Benedetti handia. Eguneko lehen zigarroa piztu nuen, etxe barruan erretzeagatik molestatuko nuen inor izan gabe alboan. Bere olerki desberdinen pilaketa bat zen, hainbeste gustatzen zitzaizkidan tapa gogorrekin argitaratua. Irakurri ahala geroz eta gehiago sartzen niharduen poesiak soilik eskaini ziezadakeen koloretako munduan, non gauek trapezio gainean bidaiatzen zuten eta ahoek beldurrak hozkatzen zituzten.

Begiak zabal zabalik irakurri nituen hirugarren olerkiko hitzak, malkoak masailean behera labainduz. Negarraldi luze xamarra eragin zidan, azken bi egunetako korapiloa isurtzen ari banintz bezala. Herstura beste zerbaitetan bilakatzen ari bailitzan.

Pixka bat lasaitu nintzenean telefonoa gerturatu nuen, eskua patrikan sartu eta papertxoa atera bitartean. Zenbakiak patxada osoz zapaldu nituen, arraro antzean sentituz gailua belarrira hurbildu bitartean.

Ahots mehe batek hitz egin zuen berehala.

–Mamiiiii?

Ezer esan gabe eskegi nuen ahal bezain azkar. Erabat hunkitu ninduen neska txikiaren ama goseak. Baina ni ez nintzen mami.

Beste hamar bat aldiz irakurri nuen olerki berbera, aldi bakoitzean sentsazio desberdinak nabariz ene baitan. Harrigarria zen ikustea hitz berberek zenbat zentzu desberdin gordetzen zituzten oihartzunaren kobazuloetan.

Espazio eta denboraren jabe ez nintzela ohartzean, nire egongelako ordua begiratu eta Uruguaiko egongelako ordua zein zen kalkulatu nuen. Han arratsaldea hasi berria zen, beraz ordubetea pasata berriz deitu nuen. Bai asmatu ere; zegoeneko atera ziren etxetik.

Erantzungailuko ahots hilaren ostean nire txanda zela iragartzen zuen tonu prefabrikatua. Liburuko orria bistan mantendu eta urduritasunez ekin egin nion:

–¿Dónde está mi país? ¿Junto al río o al borde de la noche? ¿En un pasado del que no hay que hablar o en el mejor de los agüeros? ¿Dónde?

Eta eskegi egin nuen.

Benedetti-rena ez bezala, nirea ez zen zorizko galdera izan.

Itzuli aurkibidera

Ipuinak

Bosgarren taldea

3. saria

Uxue Agirre Madariaga

Tik-tak

Tik-tak

Eskumuturrera begira dihardu etengabe, eskuturrera lotuta daukan ordularira. Denborak irrist egiten dio Markeli atzamar artetik. Geratzeke badoa. Tik, lasterka. Tak, arineketan. Eta bera geldi, Parisko metroan sustraiak botata. Baldosa eta baldosa arteko zirrikitutxoetatik sartu eta porlan gris hotzean ondo tenkatuta. Altzairu astunezko gurpilek errail ugertuak urratzean ateratzen duten kirrikaren oihartzuna entzun duela iruditu zaio. Baina haren soinua bere buruan iraungitzean konturatu da imajinazio hutsa izan dela. Westerneko pelikuletan bakarrik agertzen direla herdoildutako errailak eta kirrinka egiten duten gurpilak. Egun trenek ez dute hotsik ateratzen, are gutxiago metroek. Geltokiko erloju digitalean ipini du soa eta kukuka ikusi ditu letrak eta zenbakiak. *Balard 07:52*. Trena heltzear da.

Bi argi brillantek argitu dute metro geltokiko iluntasuna, itsutzerainokoa ia. Itsas korronteek batel txikerrak trapuzko txotxongiloen antzera mugitzen dituen gisan mugitu da Markel ere trenaren erritmora. Eta denbora badoakiola igartzen du, ziztadak sentitzen eskuturrean segundoro. Tik, zastada. Tak, tiroa. Eta hutsa harrapatu nahi izan du hatz mamiekin. Bere aurrean geratu da bagoiko atea eta larri itxaron du parez pare zabaldu arte. Barrura sartu da Markel, korrika eta presaka, giza mareak gidatuta, eta kasualitatez esertzeko lekua topatu du.

Ipuinak

Aulkian eroso sentitu denean apur bat erlaxatu da Markel eta ingurura begiratzeari ekin dio. Aldamenean duen jendearen istorioak imajinatzea gustatzen zaio, eta beta baldin badauka pintatzea ere bai. Pintzeladatan bizipenak inprimatzea, ukitzea, norbere larruan sentitzea. Trajez jantzitako gizon bat dauka jesarrita ondoan, bere maletatxo eta guzti. Telefono mugikorretik berbetan dihardu sutsu, haserre. Markelek ez dio hitz bakar bat ere entenditzen, Parisen bizi dela kasik hiru hile izan arren frantsesa murduskatzen jarraitzen du oraindik. Distira berezia darie bere zapatei, txarolezkoak dira, beltzak. Karrika kantoietan egoten den zapata garbitzaileren batek atonduko zizkiola pentsatu du, eta txanpon batzuk emango zizkiola enpresa gizonak ordainetan *Merci* esanez, ahots ilunarekin. Bere arima bezain ahots ilunarekin, zapatak bezain ahots ilunarekin.

Trajedun gizonaren aurrean inoiz ikusi dituen begirik ederrenak, txokolate koloreko bi argi eder. Hain sakona da haien kolorea eze Markelek amatxirenean hartzen zuen txokolate beroaren usaina hartu duela. Zentzumenek gainezka egin diote edertasunaren zirraraz. Jane Austenen nobela bat irakurtzen ari da neska, esku bakarrarekin heltzen dio liburuari, bestea ahoan dauka. Artega egiten die haginka azazkalei.

Laugarrengoz geratu da trena. Trajedun gizona altxatu egin da, eta baita beste berrogei pertsona ere. Bagoitik jaitsi dira, metroa ia hutsik lagaz. Txokolatezko begidun damak trenean jarraitzen du, liburua esku artean. Patuak zita luzatu dio Markeli. Nini ederdun dama eta biak bakarka bagoian.

Trena martxan jarri da berriz ere, eta Markelen harridurarako ez da inor igo bagoira *Republique*-eko geltoki jendetsuan. Metro geltokietako kantoietan maitasun baladak jotzen dituzten gitarren melodia entzutea iruditu zaio. Soken eta atzamarren arteko amodiozko erritmoa, istorioa. Tunel beltzetako ilunpeak irentsi du bagoia konturatu orduko eta bat-batean argiak itzali egin dira. Birritan jan ditu iluntasunak Markel eta txokolatezko begidun dama. Lurrean iltzatu du begirada, badaezpada. Segundo geldoen pisua biderkatu du ilunpeak. Tik, astundu. Tak, gizendu. Eta ezin izan die eutsi ia. Argiak piztu dira ostera ere, eta arnasa hartu ahal izan du berriz. Arinago sentitu du bere burua.

Argiak, hala ere, ez dira ohikoak, ez dira zuriak. Arruntak. Gorriz tindatu dira, arriskuz, boterez. Pasioz eta plazerez. Begiak altxatu ditu eta nini ederren neskarenekin egin dute tupust. Topo ustekabean. Aldameneko eserlekuan utzi du lehentxeago irakurtzen jardun duen liburua eta mototsean bilduta zeuzkan urrezko xerlo uhinduak jaregin ditu emeki-emeki. Bilo horiaren dantzaren erritmora mugitu du burua Markelek eta oilo ipurdia jarri zaio.

Bere eserlekutik jaiki eta Markelen aldamenean jarri da neska. Bihotz taupadak azeleratu zaizkio eta istant batez ordulariarekin duen guda ahanztea lortu du. Bere belauna nabaritu du neskaren belaunburu biluziarekin laztanka, zirrika. Listua irentsi du eta nola daukan izena galdetu dio bere frantses traketsean. Behinola, nonork amodioaren mintzaira dela esan zion eta bera xarma guztia hondatzeaz arduratu da ahoskera kaskarraz. *"Colette"* erantzun dio eztizko ahotsak. *"Colette"* entzun du berriz bere buruan, birritan. Eta hirugarrenean segundotik segundora epelago sentitzen duen odola igarri du larrupean. Tik, bero. Tak, sutan. Eta Coletten belaunburu biluziak berearen kontra are gehiago igartzen du. Neskak ez dio soa gainetik kentzen.

Atzamarren puntarekin losindu dio eskua Colettek lotsati, astiro. Markelen betazalek beren buruaz beste egin dute, soilik disfrutatzeko beta hartu du. Hatza mugitu du, gorantz, besoan goiti leporaino. Hasperen batek egin dio ihes mutilari samara iritsi denean Coletten txera. Sudurra hurbildu du Markelen ile artera eta sakon hartu du arnas, sakon usnatu du. Eta sudurraren puntaz azala laztantzen jarraitu du, gero eta arinago, poliki azeleratuz, bien bihotzak bezala. Niniak berpiztu ditu eta uhinezko adats horiaren azpitik begiratu die txokolatezko begi marroiei. Txokolatezko itsasoan urtu da. Ito.

Larru hutsean darraien hankaren gainean ipini du Markelek bere eskua eta doi-doi igo dio soinekoaren ertzetik gora. Hatz mamiekin sentitu du azal birjinaren gainean izerdia, beroa, pasioa. Neska eserlekutik jaiki da bi bider pentsatu gabe eta mutilaren altzoan eseri da. Biak parez pare. Besoak lepo atzean jarri dizkio eta bertan katigatuta laga ditu, korapilatuta. Eta Markelek gerrian ipini dizkio bereak, estu lotu du beragana, bien gorputzak gehiago hurbilduz. Topo egin dute bat-batean ezpainek. Ezpainek eta gero mingainek. Elkar xur-

gatu dute. Txokolatez kutsatu da Markel. Atzera egin du Colettek, deslotu egin ditu bere ezpainak Markelenetatik. Lepoan kili-kili egin dio suabe musukatuz. Gora eta gora egin du eta kosk egin dio belarrian ezustean. Erruz berotu du horrek Markel eta soineko loredunetik gorantz eskalatuz eraman du eskua. Zakila zut igarri du bakero ilunen azpian neskak.

Xerlo bihurrizko baso larua atzeraka bota du bortizki Colettek. Loredun soineko finaren azpian imajinatu du neskaren gorputz biluzia, bere geografia kurbatsua. Eta bihurguneetako birek zorabiatu egin dute Markel, txoratu imajinazio hutsez. Botoi borobilak askatzeari ekin dio mantso-mantso, presa barik, larritasuna ezkutatu nahian. Askatu du bat. Askatu ditu bi eta hiru eta sosten zuria bistan geratu da. Lepoan eman dio laztan bat lehenengo, eta mingainaren puntaz Coletten bular-aldean paseatu da. Titiburuan hozka egin dio suabe eta hasperen egin du neskak. Plazerez. Pasioz.

Argiak itzali egin dira derrepente eta Markelek Colette bere altzotik altxatzen sumatu du. Ez joateko esan nahi izan dio, geratzeko bertan, baina ez du modurik topatu. Amaren ahotsa entzun duela pentsatu du, urrunean, frantseseko klaseetara joateko ordua zela esanaz. Tik, soinua. Tak, oihartzuna. Eta enegarren aldiz damutu da frantsesa ikasteari uko egin izanaz. Neskaren txokolate zaporea aldentzen nabaritu du eta argiak piztu dira. Zuriak oraingoan atzera ere. Aurreko eserlekuan jarrita dago Colette, Jane Austenen nobela atzamar puntekin helduz. Bilo uhindua txirikorda batean bilduta dauka. Loredun soinekoko hiru botoiak lotuta.

Trena erritmoa moteltzen doa astiro, azkenean geratu arte. Liburua itxi, poltsan sartu eta bere jarlekutik jaiki da txokolatezko ninidun dama. Bagoiko atearen aurrean paratu da noiz zabalduko esperoan. Ireki dira eta *Madeleine*-ko geltokiaren aurrean aurkitu du bere burua Colettek. Markeli begiratu dio eta keinu egin dio eskumako begiarekin. Klask. Hazia isuri du mutilak.

Eskuturreko ordulariari begiratu dio milagarren aldiz Markelek. 08:03. Berandu doa lanera berriz ere. Berandu eta praka zikinekin.

Itzuli aurkibidera

Bertsoak

Lehenengo taldea

Saria

Josu Elizburu, Danel Soto, Iñaki Mujika, Irati Olabarria, Elene Arruti eta Aaron Gabilondo

Goazen hondartzara

Goazen hondartzara

(Doinua: Axuri Beltza)

1
Bihar hondartzara joango gara
Debako kosta aldera.
Arrain artean jolas egin ta
igerian egitera.

2
Bertan garela egingo dugu,
gaztelu eder-ederra.
Eta ondoren ikusi nahi dut,
uretan itsas izarra.

3
Gaur da eguna, kotxea hartu
eta Debara joateko.
Irrikan nago autotik urten
eta plaiara heltzeko

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226936

Bertsoak

Lehenengo taldea

Saria

Ibon Muniategiandikoetxea

Nere bizitza Euskal Herrian

Nere bizitza Euskal Herrian

1
Betiko nago hemen
Euskal Herri honetan
Bergaran bizi eta
bertso lehiaketan

2
Ni oso pozik nago
bizitza honekin;
orain kirola egiten
ta gero lanekin

3
Euskalduna naiz eta
pozik nago horrekin;
guk dugu herrialde
on eta atsegin.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226939

Bertsoak

Bigarren taldea

1. saria

Iker eta Xabier Aldai

Gure gustokoak

Gure gustokoak

Bertso sorta bat, ezkeintzekotan
hasi gara gaur, kantatzen
ilusio eta, posez gainezka
nator hementxe, parte hartzen
literatura, lehiaketetan
ohiturarik, ez euki arren
ausartu gara, eta hemen gatoz
gure gustua, azaltzen.

Nire anaia, hasi da eta
orain dator, nire txanda
gustora egiten, den ariketa
behin ere txarra, ez dala;
batera sortu, batera hasi
hauxe ez da, ba makala
bai soinu eta, panderuakin
gara bikote, mortala.

Bertsoak

Musika eta kirola, gure gustokoak
instrumentu ta pelota, dibertitzekoak
horretarako gu beti, gaudela prestuak
biontzako direlako, ondo egitekoak.

Hainbeste jendentzako, bertso botatzia
parte hartzea bakarrik , badu garrantzia
errima ta baita ere, jartzea grazia
saiatzeak badu beti, bere inportantzia.

Larunbat eguardia, momentu ederra
pilotalekua bete, erdi ta bazterra
zerbait gustora lortzeko, gaur dugu aukera
eta horrela ez bada, ez egin ba bera.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226949

Bertsoak

Hirugarren taldea

1. saria

Nerea Madariaga Mujika

Indarrez beteriko txinpartak

Indarrez beteriko txinpartak

1
Gune honetxek bete egiten du
beti egon dena hutsa
auzotarrena beti helduta
hortxe izan du laguntza
kultur aldetik, aisi aldetik
beti bi hauexei bultza
Bilboko Errekalde auzoko
bilgune dugu Kukutza

2
Hamasei urte Kukutza bata
okupatua izan zela
hiru hilabete iraun zituen
urtaro batek bezela
indarra bazen, grina ere bai
eta gogoa itzela
Kukutza bia okupatzea
beti buruan zutela

3
Bi urte behar izan zituzten
beste gune bat hartzeko
hainbat arazo, hainbat komeri
udaletxea tarteko
bi hilabete izan zituzten
desalojoa emateko
honen indarra amaitu zenik
ez du ba inork usteko?

4
Urte berean okupatua
Kukutza hirugarrena
Cerezo lantegia izan zena
hutsik zuena barrena
leku handia gogo handia
a zer nolako eszena
azken aldian martxan jarri den
makroproiektu onena

5
Fabrika huts bat izatetikan
jaio zen “Sortze Frabrika”
autogestioz funtzionatuaz
hornitu gabe patrika
sorkuntzarako nahia zuenak
nahitaezkoa zen zita
ideia desberdinak elkartuz
osatu zuten zatika

6
Aste osoko ekimenekin
zuten agenda beterik
zirku taldea, jantoki, barra
ez zen falta libururik
serigrafia, arte martzialak
bertan zuten denetarik
Euskal Herri osoan ez dago
holako kultur gunerik

7
Bi mila eta hamaikagarren
irailak hogeita bata
Euskal Herrian bueltan zebilen
sekulako zalaparta
batzuk barrura besteak ihes
herria zen protestaka
betiko legez herrian hitza
zuten atzean lagata

8
Orain kukutza laugarrengoa
dabil burutan bueltaka
egonezina ta amorrua
asmo berriei tiraka
auzo horretan oraindik dago
baretu gabe zarata
itzaldu zuten su hori baina
txinpartak daude hegaka

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226944

Bertsoak

Hirugarren taldea

2. saria

Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Borboiak

Borboiak

(Doinua: Bizkaiko txerriarenak)

1
Borboi familiaren
azken gertaerak
erakutsi digute
beren izaerak.
Erregeak herria
zaintzen du, eskerrak!
Diskurtsoak eman ta
badoa etxerat,
erori gabe jaitsi
Itzazu eskailerak!

2
Nahiz ta gauza handirik
ez duten egiten
ez da horren erraza
Errege izaten.
Gu errepresentatzeaz
dira arduratzen
nahiz eta teleberrin
ez diren agertzen,
nahikoa propaganda
badute "Sálvamen".

3
Diru kontuak gaizki
doazela antzeman
orduan Urdangarin
Washington-a eraman.
Borboien iruzurrik
al dago Espainian ?
Txanponetatik kanpo
aurpegia eman.
Lotsa da Zumarragan
eta Bartzelonan.

4
Jator eta herrikoia
dugu erregea
hiru hanka gainean
gizon dotorea,
hanka gaizki du eta
muleta sinplea.
Azken teknologia
du ezin hobea:
linterna, bozina ta
intermitentea.

5
Juan Carlosen biloba
hamahiru urtekin
jolasean ari zen
aitan armarekin.
Oina zulatu zuen
bala beltz batekin
aitak ikusi zuen
bere begiekin.
Hobe jolastu balu
Panpin ta kotxeekin.

6
Botswanara joan zen
eskopetarekin,
ehizara atera zen
aurpegia zikin
eta bukatu zuen
elefantearekin
orain kalean dira
beren adarrekin
errepublika eske
amorruarekin.

7
Langabeziagatik
ezin lo eginik
esnatu zen Juan Carlos
txit arduraturik.
Pauso txar bat eman ta
gerria mindurik
hospitalera joan zen
langileengatik.
Mokorra jokatzen du
Erreinuarengatik.

8
Espainiako monarkak
xelebre badira
arazo guztietan
sartuta egon dira.
Urdangarin, Froilan ta
hainbat tira-bira,
egin beharko dute
ihes atzerrira.
Borboirik gabe ere
moldatuko gira.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226948

Bertsoak

Hirugarren taldea

2. saria

Amaia Arana Madariaga, Leire Martin Gonzalez eta Maialen Belastegi Toledo

Hegoalderantz

Hegoalderantz

(8ko txikia)

1
Azalduko duguna
ez da atsegina,
kontu hau da guretzat
maltzur ta zikina,
hego partean dute
gose ta samina,
iparraldean berriz
diru ta makina.

2
Europan omen dago
krisi nabaria,
aberatsak aberats
hau da malizia,
noraino helduko da
gure gizadia,
kontsumismoan menpe
dagon gizartia.

3
Guk hautsi beharrean
daukagu sakela,
beraiena ordea
da oso ximela,
urtero batzen dira
arroz ta fardela,
jende askok uste du
asetzen direla.

4
Nahiz eta askok uste
hau nahikoa dela,
ta tripako zuloa
betetzen dutela,
egia da benetan
ez dela horrela,
ume asko ta asko
hiltzen da honela.

5
Normala deritzozu
entzule maitea,
arnasa bakoitzeko
bost ume hiltzea?
gehiegi litzateke
hola jarraitzea,
guztion esku dago
haiei laguntzea.

6
Barnean izkutatzen
dute larrimina,
ez ikusterakoan
uraren urdina,
eguzkiaren suak
erretzen du grina,
hau errealitate
ta bizi gordina.

7
Olentzeron astoa
Afrikara eztoa,
Gibraltarren baitauka
kriston oztopoa,
zergaitik ez du maite
berak itsasoa?
ez al du ba ikusten
umeen gogoa?

8
Gai honek badirudi
faltsu ta ustela,
gure inguru hontatik
urrun dirauela,
ez degu ba esaten
denok bat garela?
Joan gaitzen guztiok
Afrika aldera.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226946

Komikiak

Lehenengo taldea

Saria

Maddi Gutierrez Zenitagoia

Lata baten bizitza

Komikia

Itzuli aurkibidera

Komikiak

Lehenengo taldea

Saria

Maddi Bengoa Arregi

Eguzkia eta ilargia

Komikia



Itzuli aurkibidera

Komikiak

Bigarren taldea

1. saria

Naroa Inza Retes

Kobazulokoak

Komikia

Itzuli aurkibidera

Komikiak

Bigarren taldea

2. saria

Joseba Carnicero Padilla

Umekeriak

Komikia

Itzuli aurkibidera

Komikiak

Hirugarren taldea

1. saria

Joseba Carnicero Padilla

Bergarako jaixetan

Komikia



Itzuli aurkibidera

Komikiak

Hirugarren taldea

2. saria

Gorka Martin Gonzalez

Irakasle metaforikoa

Komikia

Itzuli aurkibidera

Txistea / Umorezko pasadizoa

Lehenengo taldea

Saria

Julen Zabala

Mesedez

Mesedez

Mutiko bat zeguan ingleseko klasian eta esaten dotsa maixuak:

–Nola esaten da inglesez mesedez?

Eta ez zan akordatzen, eta ez zan akordatzen eta egitten dotsa atzekaldekuak: plis!

–A! Please.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226992

Txistea / Umorezko pasadizoa

Lehenengo taldea

Saria

Aritz Unamuno, Josu Morras eta Aitor Alberdi

Usain txarrak, lanak

Usain txarrak

Txerrixa erosi dabela kontatzen dotsa gizon batek bere lehengusuari; bere gelan daukala eta ohe azpixan lo egitten dabela txerrixak.

–Eta usaiñakin, zer?

–A, neri bost axola! Hor konpon txerrixa! Ohittuko da.

Lanak

Galdetzen dotsa Jaimitok aittari:

–Aizu aita! Zuk emongo zontsake zaplasteko bat ezer egin ez daben ume bati?

–Zergaittik? Ez horixe! –erantzun dotsa aittak.

–A, eskerrak! Hola lasai esango dotsut ez dotela ikastolako lanik egin.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/226963

Txistea / Umorezko pasadizoa

Bigarren taldea

1. saria

Irati Lazpiur

Zilarrezko ezteiak

Zillarrezko ezteiak

Zillarrezko ezteiak direla eta, andriak sorpresa izugarrixa prestau zotsan senarrari:

–Josetxo, hurrengo hillabetian zillarrezko ezteiak ospatuko dittugu eta sorpresa txikitxo bat emon behar dotsut

–Ai Maria! Oin be zu akordatu behar holako detailliakin! Nik… badakizu ez daukatela holako detaillietarako burua!

–Bai, bai Jose…! Bai, bai!

–Eta, zer? Ze sorpresa da, ba?

–Biajia egin behar dogu Jose! Biajia!

–A, bai? Eta nora, ba?

–Australiara goiaz!

–Australiara?

–Bai! Zer? Gaizki pentsatzen jatzu, ala?

–Ez, ez, ez! Ez neban espero eta. Primeran pasauko dogu bertako animalixak ikusten: kanguruak, eta han txerrixa, eta…

–Txerrixa, Jose? Han ez dago txerririk!

–Ai, Maria! Barkatu! Beste gauza bat neguan pentsatzen. Eta, aizu, Maria! Eta zillarrezko ezteietan Australiara bagoiaz, nora eruango nazu, ba, urrezko ezteiak ospatzen dittugunian?

–Lasai, Josetxo! Hori be aurreikusitta daukat. Orduan bueltatzeko txartela erregalauko dotsut.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/227030

Txistea / Umorezko pasadizoa

Bigarren taldea

2. saria

Jon Etxeberria

Txixaguria

Txixaguria

Bazan behin Aittor Mozilla izeneko mutil fuerte bat. Hain hanka luzia zan, hantxe etxe txik-txiki baten bizi zala. Lagunek be hanka motz deitzen zotsen baina horrek ez dauka inolako zerikusirik.

Ba hola juten zan egunero, belar-jalia zala esaten zaban, baina ostegunero ederki jaten zaban pintxua, pintxo-poteuan. Eta gero ba ardaua hartu, pintxuak, urdaiazpikua eta dana. Jan eta edan, mozkor-mozkor eginda etxera kotxian. Hantxe juten zan arbola danak jotzen kotxiakin eta animalixa danak, baitta karakolak be, danak barrezka.

Eta gero etxera aillegatzen zanian: Ui! Barkatu! Amen eta amon. Eta animalixak han bentanatik begira, barre egitten.

Eta gero, egun baten okurridu jakon Reala ikustera jutia autobusian. Hantxe jun zan harro-harro tiketakin.

–Tiketa daukat –eta autobusian sartu zan.

Autobusian sartu zanian, hartu zaban bere liburuxka eta hasi zan irakurtzen. Bidaia erdi irakurtzen, gero aurikularrak hartu eta mobil batekin, mobil kutre batekin, han hasi zan musikia entzuten.

Ailegatu zan Anoetara, justu-justu, autobusa berandu aillegatu zala eta. Sartu zan estadixora eta,

–Bokadilua hartu behar dot. Hasi zan bokadilua jaten, ardo pixka batekin be bai.

Lehenengo zatixa bukatu zan, Reala irabazten, eta bera Realekua zan eta ba pozik, animatzen, eta hango inguruko jendiakin berbetan.

Bigarren zatixa hasterakuan, han jun zan berriro: Coca Cola bat, ardaua, beste Coca Cola bat, beste ardau pote bat. Dana edan zaban eta gero ba… patata batzuk. Eta txixa egin be ez.

Bukatu zan Realeko partidua eta jun zan autobusera txixa egin barik. Sartu zan autobusian eta.

–Ostras, txixaguria! –baiña ezin zan bajau orain.

Autobusa pasatu zan Soraluzetik eta bera han kriston txixaguriakin.

-Joe, noiz aillegatuko ote da!

Eta gero, jun zan autobusa eta Osintxun geldittu.

-Joe, txixaguria hi!

Eta gero Bergaran. Geldittu zan Bergaran, hasi zan eskailleretatik bajatzen eta han ikusi zaban komuna bere onduan.

Eta hantxe –Mekauen dios –eta hola hasi zan.

Gero jun zan kotxera eta kotxera sartu eta plast! Txixa praketan!

Hantxe jun zan prakak busti-busti eginda, kriston hasarriakin.

Eta, hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila autobusian sartu baino lehenago txixa.

Itzuli aurkibidera

Grabazioa hemen: http://www.bergarakoeuskara.net/node/227026